

Eskola Inklusiboaren  
esparruan  
Aniztasunari erantzuteko  
Plan Estrategikoa

2012 - 2016



# Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa

2012-2016

© Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

2012ko apirila

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



<b>↳ Aurkezpena</b>	5
<b>↳ Lehenengo atala: marko teorikoa</b>	
1. Sarrera	8
2. Eskola inklusiboa	11
3. Zer egin behar dugun eskola inklusiboa egituratzeko	13
3.1. Kultura inklusiboak sortzea	13
3.2. Politika inklusiboak lantzea	14
3.3. Jarduera inklusiboak gauzatzea	15
4. Zer lehentasun dituen eskola inklusiboak	18
<b>↳ Bigarren atala: plan estrategikoa</b>	
5. Egoera zein den	22
6. Euskal eskola inklusiboaren eginkizuna eta ikuspegia	28
7. Euskal eskola inklusiboa garatzeko helburuak	29
8. Helburu, xede eta ekintza estrategikoak	30
9. Planaren ebaluazioa	45
<b>↳ Eranskinak</b>	
10. Hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleak	48
11. Terminoen glosategia	53
12. Bibliografia	63
13. Plan estrategikoa: kronograma	68



**M**unduko hezkuntza-sistema guztiek egin behar diote aurre haur eta gazteei kalitatezko heziketa bat emateko erronka handiari. Nazioarteko erakunde, konferentzia, adierazpen eta gomendio guztiek esaten dute hezkuntza-sistemek hezkuntza-inklusioaren bidea ibili behar dutela kalitatezko heziketa bat emateko, hau da, heziketa bidezkoagoa eta ekitate handiagokoa lantzeko.

Nazioarteko komunitateak eskubide gisa aitortu du pertsona guztiei hezkuntza inklusiboago bat emateko helburu hori. Hori jakinda, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak proiektu, plan eta ekintza ugari bultzatzen ari da ikasleek ikasketetan onartuak izateko, beren heziketa-prozesuan parte hartzeko eta ikasteko dituzten eragozpenak eta oztupoak murrizteko. Lan horren baitan, arreta berezia ematen diegu egoera zailak bizi dituzten ikasleei, bazterketa-egoeraren bat pairatzeko arriskua dutenei eta beren beharrezanean erantzuteko kalitatezko heziketa jasotzeko premia handiena dutenei.

Inklusioaren prozesuak, hezkuntza-interbentzioko prozesua den aldetik, ez du amaiera-punturik. Ikastetxe bakoitzak prozesu horren momentu batean eragiten du, eta, ondorioz, puntu horretatik aurrerako bidea egitea dagokio ikastetxe bakoitzari. Euskal Autonomia Erkidegoan aurrerapen handiak egin ditugu bide horretan, baina badugu oraindik zer hobetua.

Ikastetxeak dira aldaketaren eragile, horietan ematen dira aurrerapauso handienak, eta ikastetxeetan bilatu behar ditugu, hain justu, ikasle guztiak hezkuntza-prozesura ekartzeko bitartekoak. Ikastea eta parte hartzea zailtzen duten oztupoak hautemateko gaitasuna duten irakasleak behar ditugu. Hezkuntza-inklusioaren printzipioak, hau da, presentzia, parte-hartzea eta lorpena, bultzatzeko bidean lidergo-lana egingo duten zuzendaritza-taldeak behar ditugu.


Ikuspegi inklusiboak barneratuko baditugu, behar-beharrezkoa da irakasleek, eta, oro har, hezkuntza-komunitateak gogoz laguntzea eta inplikatzeta.

Hezkuntza-sisteman eta ikastetxeetan ikuspegi hau indartzeko, *Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa* abiarazi dugu. Planak bat egiten du UNESCOk sustatzen duen hezkuntza inklusiboaren jardun-ildoarekin; izan ere, erakunde horrek 2015. urtean bete nahi du pertsona guztiei kalitatezko hezkuntza inklusiboa emateko konpromisoa.

Ekintza-multzo bat proposatzen du planak, ikasle guztiek garapen handiena lor dezaten, pertsonen arteko diferentzia indibidualak aintzat hartuta eta aniztasunak dakarren aberastasuna indartuz. Finean, eskolan arrakasta izateko aukera eman nahi diegu ikasle guztiei, eta, horrekin batera, hezkuntza-sistemaren kalitatea eta bikaintasuna handitu.

Agiri honetan egiten diren proposamenak gogoz lantzeko deia egiten diet hezkuntza-alarreko eta gizarteko eragile guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko apirilaren 19an



**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburua**

Isabel Celaá







## 1. Sarrera

---

Hezkuntza-korrante demokratikoez egindako hausnarketen eta ekarpenen fruitua da hezkuntzaren korrante inklusiboa.

Gure autonomia erkidegoan, Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua (1982) izan zen abiapuntua. Egitamu hark abian jarritako ekimenei esker, hezkuntza gero eta inklusiboago bilakatu da.

Duela hogeita bost urte baino gehiago egindako egitamu hori etengabe aztertu eta eguneratu dugu. 1987an, batzorde bat eratu zen, egitamua lehenengo aldiz aztertzeko. Batzorde horrek "Eskola Muinbakarra eta Integratzailea" deritzon txostenean jaso zituen egindako lanaren emaitzak eta aholkuak. Txostenean esaten denez, eskolak herrialdeko neska-mutil guztiak onartu behar ditu, bereizkeriarik gabe, eta ikasle guztien integrazioa bultzatu behar du, bai eskolan, bai gizartean.

Integrazioaren helburua zen ahalmen-urritasunak zituzten ikasleak ohiko eskoletan eskolatzea eta, bidez batez, irakaskuntzara, ikasketetara eta eskolako antolaketara moldaraztea. Aurrerapauso handia izan zen ahalmen-urritasunak zituzten ikasleen hezkuntza hobetzeko; dena den, askotan integrazio fisikoa besterik ez zen lortu. Ikasle horietako asko baztertua sentitu ziren; izan ere, nahiz eta ikasgelan egon, ez zuten parte hartzen. Ikus Arartekoaren ikerketa (Arartekoa 2001)<sup>3</sup>. Ikerketa horren arabera, hezkuntza-premia bereziak (HPB) zituzten ikasle asko ez zeuden sozialki integratuta.

Eskoletan integrazio-prozesua hobetzeko, hezkuntza berriztatzeko programak eta lehentasun-ildoak ezarri zituen Hezkuntza Sailak, euskal hezkuntza-sistemaren unean uneko beharrak kontuan hartuta. Ildo horietako batek, "guztiontzako eskola" zeritzonak, aniztasunarekiko arretaren hainbat alderdi hartu zituen kontuan, esate baterako: kultura arteko hezkuntza, elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza, ingurune kaltetuetan aplikatu beharreko parekotasunerako hezkuntza eta ikaskuntza-oztopoak gainditzeko hezkuntza.

Bide luze horretan, zientzia-, pedagogia- eta gizarte-pentsamenduak, batez ere, instituzioa izan du aztergai; hots, ikasleak hartzen dituen instituzioa. Eta instituzio horrek ikasleak nola hartzen dituen aztertu du. Ez ditu hain kontuan izan gizabanakoaren gabeziak. Horrek ez du esan nahi, baina, eskolara doazen gizabanakoaren bereizitasunak ahaztu dituenik.

Azken hamarkadetan, hezkuntza inklusiboa bultzatu egin behar dela adierazi da nazioarteko hainbat deklaraziotan, forotan eta egitasmotan; nazioarteko zenbait erakundek ere hori bera adierazi dute. Haur guztiak eskolatu behar direla azpimarratu dute, eta, batez ere, babesgabe edo baztertua daudenak. Deklarazio, foro, programa eta gomendio nagusiak aipatuko ditugu jarraian.

1990ean, UNESCOk nazioarteko foro bat egin zuen Jomtien hirian (Tailandia). Bertan, hezkuntzaren arloko jarraibideak ezarri zituzten eta inklusioaren ideia mahaigaineratu zuten lehenengo aldiz. Pertsona guztientzako hezkuntza baten aldeko konpromisoa hartu zuten bertan, hau da, adierazi zuten hezkuntzak oinarritzko ikaskuntza-premiak ase behar dituela, eta gizabanakoen ongizate indibiduala nahiz soziala bultzatu behar dituela hezkuntza-sistema formalaren baitan.

Salamancako deklarazioak (1994) hezkuntza bereziaren norabidea aldatu zuen, zalantzarik gabe. Deklarazio horretan azpimarratu zen ezinbestekoa dela haur, gazte eta heldu guztiak hezkuntza-sistema berean heztea, hezkuntza-premia bereziak izan edo ez, eta inklusioak izan behar duela guztiontzako hezkuntza eraikitzeke politikaren eta jardunaren gidari.

Pertsona guztientzako eskola berdintasunaren eta parekotasunaren printzipio demokratiko bat dela onartzen badugu, eskoletan abian jarri behar dugu Europar Batasuneko Itunaren 5.ter artikulua, Lisboako Itunak (2007) aldatutakoa: "Politika eta ekintzak zehaztu eta gauzatzeko lanetan, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzen ahaleginduko da Batasuna".

Educación y formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010 (Hezkuntza eta prestakuntza Europan: sistema anitzak, 2010erako helburu komunak) deritzon lan-egitasmoan, hainbat hezkuntza-helburu zehaztu ziren, eta horietako batzuek espresuki egiten diete erreferentzia desabantaila-egoeran dauden ikasleei, hau da, gizarte-maila apaleko ikasleei, premia bereziak dituztenei, eskola behar baino lehenago uzten dutenei eta ikasle helduei.

Bestalde, Europar Batasunak 2020rako ezarritako helburuetako bat da eskola uzten dutenen ehunekoa gutxitzea: "Ikasleen %10ek baino gutxiagok utzi behar lioke ikasteari behar baino lehenago, eta belaunaldi gazteenaren %40k, gutxienez, goi-mailako ikasketa osoak izan behar lituzke".

INCLUD-ED programa integratuak bi hezkuntza-estrategia multzo aztertzen ditu: batetik, desberdintasunak gainditzeko eta gizarte-kohesioa sustatzeko hezkuntza-estrategiak; eta, bestetik, gizarte-bazterketa eragiten duten hezkuntza-estrategiak, honako gizarte-talde ahul hauei begira: emakumeak, gazteak, etorkinak, kultura ezberdinetako kideak eta ahalmen-urritasunak dituzten pertsonak.

INCLUD-ED programaren baitan hezkuntza-jarduera eraginkorreki buruz egindako ikerketa batzuek frogatu dute hezkuntza-jarduera eraginkorrek ikasle guztien emaitza akademikoak hobetzen dituztela, eta bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa bultzatzen.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Index for Inclusion delakoa moldatu eta honako izenburu honekin argitaratu zuen: Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida. Hezkuntza-zentroetan ikaskuntza eta parte-hartzea garatuz (2005). Gida horrek bultzada handia eman dio eskola inklusiboari..

Eta, azkenik, aipa ditzagun Europar Batasunaren gomendioak; izan ere, Europar Kontseiluak ahalmen-urritasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko egindako 2006-2015erako Ekintza Planaren zutabeak dira gomendio horiek. Hauexek dira plan horren helburuak:

1. Pertsona guztiek, ahalmen-urritasunaren mota eta maila edozein dela ere, hezkuntza jasotzeko berdintasuna dutela bermatzea, bai eta nortasuna, talentua, sormena eta gaitasun edo trebetasun intelektualak eta fisikoak ahalik eta gehien garatzen dituztela ere.
2. Ahalmen-urritasunak dituzten pertsonak eskolatzeko arrunta dutela bermatzea, eta agintari eskudunek ahalmen-urritasunak dituzten biztanleen premiak betetzeko hezkuntza-baliabideak ezartzea bultzatzea.
3. Ahalmen-urritasunak dituzten pertsonen, edozein adin dutela ere, bizitza osoan zehar laguntzea eta baliabideak ematea ikas dezaten; eta ikasketa-faseen arteko bidea eta ikastetik lan egiterako bidea erraztea.
4. Hezkuntza-sistemako maila guztietan, haur eta adin txikienetatik hasita, ahalmen-urritasunak dituzten pertsonen eskubideekiko errespetuzko jarrera garatzea.

Hainbat erakundek eta autorek diote inklusioa gizakion eskubideei buruzko erreferentzia-marko bat dela eta marko horrek erreforma integratzaileek ezarritako markoa baino zabalagoa izan behar lukeela. Normalizazio-printzipioan aldarrikatzen zen eskubide berezia atzean utzi eta Giza Eskubideen Aldarrikapenaren esparru zabala hartu da inklusioaren aldeko politikak eta programak asmatzeko eta garatzeko.

Etikak agintzen du parekotasuna eta gizarte-justizia izan behar direla hezkuntzaren oinarri. Konpromiso horrek, etikak agintzen duenarekin bat datorrenez, administrazioei, politikariei, hezkuntza-arloko langileei eta gizarteko bestelako eragileei jardunbideak eta erabakiak alda ditzaten eskatzen die, hain zuzen ere, herritar guztiak kontuan hartzeko.

Txostenak bat egiten du UNESCOk mundu-mailan sustatzen duen hezkuntza inklusiboaren korrontearekin. Munduko komunitateak 2015rako bete nahi du guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eskaintzeko konpromisoa.

## 2. Eskola inklusiboa

---

Gizartean eta eskoletan -eskolak gizartearen parte diren aldetik-aniztasunari nola erantzun behar diogun zehazten du inklusio kontzeptuak. Praktikan, hezkuntza-erantzunaren ardatza aldatzea dakar: eskola-inguru arrunta izan behar da ardatz, orain arte ikasleak besterik ez baitziren kontuan hartzen.

Eskola inklusiboa deskribatzeko alderdi asko izan behar ditugu kontuan, ezin dugu alderdi baten bidez soilik laburbildu. Izan ere, eskola inklusiboa sare bat da, hezkuntza berri bati, hots, guztiontzako eskola bati, eusten diona. Zenbat eta alderdi gehiagotatik jardun aldi berean helburu berak lortzeko, hainbat eta sendoagoa izango da eskola inklusiboa. Trinkoagoa izango da baldin eta hezkuntza-komunitateak egindako gogoeta bateratuaren eta eskola-komunitatean izandako aurrerapenen fruitua bada.

Eskola inklusiboa definitzeko, hezkuntza inklusiboaren aldeko zenbait egileren definizioa erabiliko dugu, hain zuzen ere, Ainscow, Booth eta Dysonena (2006) eta Echeita eta Dukena (2008): "Haur eta gazte guztiak hezkuntza jasoko dutela bermatzen du eskola inklusiboak; ez, ordea, edozein hezkuntza, kalitatezko hezkuntza baizik, guztiei aukera berak emango dizkiena.

Ikasle guztiak hezkuntza jasotzeko eskubidea izatea bermatzea dakar hezkuntza-inklusiok, eta hezkuntza-bereizkeria eta -bazterketa oro gainditu behar da horretarako.

Bide honetan, hainbat oztopo gainditu behar ditugu mundu guzti-guztiak hezkuntza jaso, eskolan parte hartu eta ikas dezan, eta gizarte-egoera ahuleko ikasleek eta gizarte-maila apaleko ikasleek bereziki; izan ere, ikasle horiek baztertuta eta kalitatezko hezkuntzaren beharrean egoten dira maiz.

Hortaz, kalitatearen adierazlea edo faktorea da inklusioa, **ikasle guztiak** hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzea baitakar.

Beraz, honako baldintza hauek bete behar ditu eskola inklusiboak:

- Ikasleen aniztasuna aintzat hartzeko hezkuntza-egitasmo bat izan behar du, ikastetxeko kulturak, politikak eta jardunak kontuan hartuko dituena.
- Eraiki behar dugun eskola-komunitateak abegikorra, laguntzailea eta bizigarria izan behar du, eta ikasleen gaitasun eta ahalmen guztiak balioetsi behar ditu, hori baita eskola-arrakastaren oinarria.
- Pertsona bakoitzaren behar sozialei eta hezkuntza-beharrei erantzun behar die.

- Oztupoak gainditzeko konpromisoa hartu behar dugu, ikasle guztiek hezkuntza jaso, eskolan parte hartu eta ikasi ahal dezaten, eta ahaleginak egin behar ditugu ikastetxeek ikasleen aniztasunari erantzuteko dituzten oztupoak gaindi ditzaten.
- Ikasle guzti-guztiak bultzatu behar ditugu ikastera eta parte hartzera, batez ere, gizarte-egoera ahuleko ikasleak, sexuagatik, erlijioagatik, kulturagatik edo etniagatik baztertuak izateko arriskua dutenak.
- Hobekuntza-planak gertu izan behar ditugu eskola-instituzioarentzat, irakasleentzat eta ikasleentzat, inklusiorako bidean aurrera egiteko.
- Ikasleen aniztasuna balioetsi behar dugu, eta pertsona guztiei lagundu behar diegu ikasten. Izan ere, aniztasuna ez da arazo bat; aitzitik, aberasgarria da.
- Ikastetxeek eta bertako komunitateek elkarri lagundu behar diote.
- Kontuan hartu behar dugu proiektu hori beharrezkoa dela gizarte inklusibo bat eraiki nahi badugu.
- Ikasgela barruan laguntza antolatu eta jaso behar dugu, ikasle bakoitzaren eta guztien beharrei erantzuteko.

Laburbilduz, ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza bidezkoa eta justua eraikitzen laguntzeko konpromisoa eta jarrera dakartza hezkuntza inklusiboak. Haur eta gazte guztiekin du lotura. Inklusioa prozesu jarraitua da. Prozesu horren bidez, haur eta gazte guztiek, bazterkeriarik gabe, eskolara joan ahal izatea, eta eskolan parte hartzea eta arrakasta izatea lortu nahi dugu. Arrakasta zenbatekoa den jakiteko, emaitzak aztertu behar dira, noski.

### **3. Zer egin behar dugun eskola inklusiboa egituratzeko**

---

ikuspuntua hau kontuan hartuz aldatu nahi badugu eskola, honako hiru gauza hauek egin behar ditugu:

1. Kultura inklusiboak sortu
2. Politika inklusiboak landu
3. Jarduera inklusiboak gauzatu

#### **3.1. Kultura inklusiboak sortzea**

Kultura inklusiboak sortzeko, funtsezko bi alderdi hauek hartu behar ditugu oinarri: komunitatea sortzea eta balio inklusiboak ezartzea. Kultura inklusiborako bidean, hezkuntza-sistema osoaren jokamoldeak aztertu beharko ditugu, ikaskuntzari eta parte-hartzeari zeintzuk oztopo egiten dioten jakiteko.

Lehenik eta behin, ikastetxeko hezkuntza-proiektua egin beharko dugu; horretarako, gizarte- eta kultura-ingurunea aztertu eta prozesuak ebaluatu beharko ditugu etengabe (irakasleek nola esku hartzen duten, ikasleek nola ikasten duten, hezkuntza-sistemak zer traba jartzen dituen). Proiektu horren bidez jakingo dugu, hain zuzen ere, zer balio, helburu eta lehentasunen arabera jardun behar dugun.

Kultura inklusiboaren baitan egindako Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak honako gai hauei buruzko erabakiak bideratuko ditu:

- a) Berdintasuna, zuzentasuna eta justizia sustatzea.
- b) Eskolako oinarriko elementuak berregituratzea aniztasunari erantzuteko.
- c) Ikasle guztien ikaskuntza bermatzea.
- d) Komunitateko kide guztien parte-hartzea bermatzea.
- e) Irakasleek ikasle guzti-guztien gaitasunetan sinestea lortzea.

Eskola inklusiboan, irakasleek, ikasleek, familiek eta/edo legezko ordezkariak eta eragile sozialek komunitate-sentimendua bizi eta lantzen dute guztien artean.

Ikastetxearen parte direla sentitu behar dute ikasleek. Ikastetxeak komunitate bat izan behar du; hau da, antolatutako testuinguru bat, ikasleei harrera egin eta hainbat motatako esperientzia aberasgarriak biziaraziko dizkiena. Ikasle bakoitza den bezala onartu eta tratatu behar da, eta, jakina, ikasle guztiek zuzenean hartu behar dute parte komunitate horretan.

Zuzendaritza-taldeak bere gain hartu eta bideratu behar du ikastetxeak ikasle guztien ikaskuntzarekiko duen konpromisoa, eta horrek izan behar du, hain zuzen ere, heziketa-lanaren ardatz. Ikastetxeetan inklusioari traba egiten dioten oztopoak desagerrarazteko, ezinbestekoa da zuzendaritza-taldeak inklusioaren alde agertzea ezbairik gabe, eta lidergo-lana gauzatzea. Are gehiago, hezkuntza-komunitate osoari dagokio inklusioaren alde jardutea.

Inor baztertzen ez den eskola bat sortzeak aldaketa sakonak ekarriko ditu eskola-kulturan. Aldaketa horiek, ikastetxeko hezkuntza-proiektuan landutako printzipioetan eta balioetan eragiteaz gainera, eragina izango dute, baita ere, erabiltzen ditugun hizkeretan, idatzi gabeko arauetan eta gure jardueraren ardatz diren eta gertakariei aurre egiteko modua baldintzatzen duten ereduetan.

Azkenik, berrikuntza-kultura sendotu behar dugu, hau da, aldatzeko gaitasuna landu, aldaketak egitea kostatu egiten bazaigu ere askotan. Eskola inklusiboak berrikuntza sustatzen du hezkuntza-jarrera gisa.

### 3.2. Elaboración de políticas inclusivas

Ikastetxeetako politika inklusiboen helburua guztiontzako eskola egituratzea da, bai eta baliabideak behar bezala antolatzea ere, aniztasunarekiko arreta bermatzeko.

Politika hauek abian jartzen baditugu, ikasleen ikaskuntza eta parte-hartzea hobetu egingo dira, eta, horrenbestez, ikastetxeak ahalmen handiagoa izango du ikasle guzti-guztiak aurrera bultzatzeko, batez ere, zaitasun-egoeran dauden ikasleak.

Ikasteko eta parte hartzeko oztopoak identifikatzeko, ikasleek inguruarekin, gizarte-egoerarekin, norberaren egoerarekin eta eskolako ibilbidearekin zer elkarrekintza duten aztertu behar dugu.

Era berean, irakasleen jarduna aztertu behar da, bai eta ikastetxean parte hartzen duten gainerako pertsonena ere.

Honako hauek egin behar dira politika inklusiboak lantzeko:

- a) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei eman behar zaie harrera, eta kide guztien (irakasleak, ikasleak, familiak...) parte-hartzea sustatu behar da.
- b) Lege-esparrua eta araudia egokitu behar dira, indarrean dagoen legegintza-egoera eta ikastetxe bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta.
- c) Eskola ikasle guztientzat irisgarri izateko lan egin behar dugu. Ikasleak maila guztietan garatu behar dira, eta aukera-



berdintasuna izan behar dute. Hortaz, hori eragozten duten oztopoak kentzeko neurriak hartu beharko dira.

- d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lehenetsitako arloetan ikuspegi inklusiboa txertatu behar da, hezkuntza-sistemako maila guztietan. Hori dela eta, eskola inklusiboaren printzipioak kontuan hartu behar ditugu honako gai hauek proposatzen, eztabaidatzen eta egituratzen ditugunean: curriculumean esplizituki sartuta dauden balioak, arraila digitala gainditzeko erabiltzen den modernizazio teknologikoa, hirueletasunari eman nahi zaion bultzada eta ezagutza zientifikoa lortzeko moduak eta ikerketa.
- e) Hezkuntza-etapa batetik bestera igarotzeko bidea erraztea, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara batez ere, ez dadin hausturarik edo zatikatzerik egon, irizpideak eta baldintzan partekatu ahal izateko, eta bi etapen arteko kultura profesionalak elkarren artean hurbiltzeko.
- f) Ikastetxeen ikasketa-proiektuak lantzea, eskola-curriculumeko gaitasunen ikuspegia ardatz hartuta. Edukiak aukeratzekoan, oinarrizko gaitasunak hartu behar dira kontuan; izan ere, azken finean, bizitzan erabilgarri diren gauzak ikastea da helburua. Horregatik, oinarrizko gaitasunak oso garrantzitsuak dira eskolarentzat.
- g) Curriculuma egitean kontua hartu beharreko neurriekin eta laguntza pedagogikoarekin lotzea aniztasunarekiko arreta.
- h) Irakasle-talde egonkorak sustatzea proiektu inklusiboak lantzea errazagoa izan dadin.
- i) Ikastetxe batek ikasleen aniztasunari erantzuteko egiten dituen ekimen guztiei egiten die erreferentzia laguntza pedagogikoak. Irakasleek eta familiek ikastetxeko eta komunitateko baliabideak erabili behar dituzte ikasle guztien ikaskuntza bultzatzeko.

### 3.3. Jarduera inklusiboak gauzatzea

Praktika inklusiboak kultura eta politika inklusiboaren ondorio dira. Praktika hauek garatzeko, funtsean bi gauza egin behar ditugu: ikasketa-prozesua bideratu eta baliabideak erabili.

Ikastetxeetan praktika inklusiboak garatzeko, irakasleek gogoeta bateratua egin beharko dute, eta, ikasgela abiapuntu hartuta, honako oinarrizko hiru alderdi hauek azpimarratuko dituzte: inguru inklusibo batean zerk funtzionatzen duen eta zerk ez aztertu behar da, nola eta zergatik funtzionatzen duen jakin behar dugu; hau da, inklusioa gertatzeko zer baldintza egon behar diren jakin behar dugu.

Ikastetxeak benetan inklusiboak izateko, ondoren zehazten dena beharrezkoa da:

- a) Ikastetxeko ikasleen aniztasunaz jabetzea.
- b) Curriculumaren edukiak eta ikasgelako jarduerak berrikustea.
- c) Espazioak eta denbora nola erabiltzen diren aztertzea, eta helburuak kontuan hartuta berrantolatzea.
- d) Ikasleak motibatzea eta haien beharrei buruz gogoeta egitea.
- e) Aurretiko ezagutzak erabiltzea ikasgelako jarduerari eta lanari zentzua emateko.
- f) Proiektu zabalak eta malguak egitea, irakasleek proiektu horietan parte hartzea ekarriko dutenak.
- g) Ikasgelak beste modu batean antolatzea, ikasleen autonomia eta elkarlana sustatzeko.

Laguntza koordinatzen eta bideratzen dugunean, ikasleak izan behar ditugu gogoan, bai eta haien garapena ere. Horretarako, lehenik eta behin, ikasleek, banaka nahiz taldean, nola esku-hartzen duten aztertu behar dugu, ikasleen esku-hartzea praktika inklusiboarekin bat datorren jakiteko, edo esku-hartze horrek ikaskuntzari oztopoak jartzen eta ikasleen parte-hartzea mugatzen ote duen jakiteko.

Hezkuntza-jardunean, ikasleek jasotzen duten laguntza banakakoa eta bereizia izan ohi da. Eskola inklusiboan, ordea, laguntza kontzeptuak zabalagoa izan behar du; ezinbestekoa da irakasleek eta profesionalek elkarlanean jardutea, ikaskuntza-metodoak ikasle guztiguztien beharrei erantzutea eta irakasleek prestakuntza jasotzea; izan ere, prestakuntza oso garrantzitsua da hezkuntza-jarduna gero eta inklusiboagoa izan dadin.

Ikasle guztiek parte hartzen dutela bermatu behar da, baztertuak izateko arrisku handiena dutenek bereziki, bai eta hezkuntza-komunitate osoak konpromisoa bere egiten duela ziurtatu ere. Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak ikasle guztientzat irigarriak izan behar dira. Horrez gainera, eskaintzak zabala eta erakargarria izan behar du, ikasle guztien interesa erakartzeko modukoa. Ikasitakoa finkatzeko, ezagutarazi eta erabili egin behar dira inguruko baliabideak (herriko edo auzoko baliabideak).

Curriculumeko oinarriko gaitasunen gainean gauzatzen da diagnosi-ebaluazioa, eta prestakuntza- eta orientazio-laguntza ematen die ikastetxeei. Edonola ere, ebaluazio-prozesu horiek egiterakoan, kontuan hartu behar da ikastetxe bakoitzaren errealitatea. Probak prestatzerakoan ez da ahaztu behar kanpokoak eta estandarizatuak izan behar dutela, eta ikasle gehienek parte hartu ahal izateko modukoak.

Lehenengo aldiz, ikastetxeei eman dizkiegu ikasleen ebaluazio objektiboaren eta zientifikoaren emaitzak. Emaitza horiek abiapuntutzat hartuta, zenbat hobetu behar den zehaztu beharko da eta hobekuntza hori lortzeko plan bat egin. Horretarako ere, ikasle guzti-guztien hobekuntza bermatuko duten proposamenak aztertu behar dira.

## 4. Zer lehenetasun dituen eskola inklusiboak

---

Eskola inklusiboaren xede nagusia da ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea haien gaitasunak eta ahalmenak proiektu pertsonal eta profesional bat eraikitzeko gai izan daitezen. Horretarako, ikasle guztiek hezkuntzan sartzeko eta horrekin jarraitzeko aukera izango dutela bermatu behar da, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini, aukera-berdintasunean oinarritutakoa. Xede hori lortzeko, honako lehenetasun orokor hauek nabarmenduko ditugu:

**1. Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea.** Eskainiko dugun hezkuntza-erantzuna ikasle bakoitzaren beharretara egokituta egongo da, eta aniztasunari erantzun emateko behar diren banakako neurriak abiarazteko konpromisoa hartuko dugu, bere gaitasunen garapena bermatzeko.

**2. Eskola-esparru arruntetik jardutea.** Eskola-esparru arruntetik jardun behar da hezkuntza-sistemaren funtsezko elementuen gainean (curriculumarekin, metodologiarekin eta antolaketarekin lotutako elementuak), eta arreta berezia jarriko dugu ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen duten irakaskuntza-ikaskuntza estrategietan.

**3. Irakasle guztiak, gainerako langileak eta familiak inplikatzeko.** Funtsezkoa da irakasle guztien, gainerako langileen eta familien inplikazioa lortzea, hau da, beren gain hartu behar dute hezkuntza inklusibo bat lortzeko erantzukizuna, eta aniztasunari hezkuntza-erantzuna emateko ikuspegi berri horren protagonista etiko direla sentitu behar dute. Hortaz, haien lanbide-garapenari eta -trebakuntzari lagunduko dieten estrategiak abiarazi beharko dituzte hezkuntzako langile guztiek, eta haien arteko koordinazioa eta lankidetzak gauzatzeko egiturak sortu.

**4. Haurren eta esku-hartzearen beharrak garaiz balioestea.** Hezkuntza-sistemak, beraz, ahalik eta azkarren aztertu beharko ditu premia horiek, baliabide pertsonalak eta materialak jarri beharko ditu guztien eskura, curriculumak egokitu beharko du, irakasleei edo tutoreei erabakiak hartzen parte hartzeko eskatuko die, ohiko irakasleei zein langile espezializatuei prestakuntza emango die eta sektore arteko koordinazioa hobetuko du.

**5. Ikasteko aukera errealak ematea gizartetik baztertuak izateko arrisku handiena duten kolektiboak.** Eskola inklusiboak bereziki bermatu behar ditu hainbat arrazoi direla medio gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden ikasleen presentzia, parte-hartzea eta lorpenak, eta modu positiboan jardun behar du

ikasleek ahalik eta gaitasun gehien gara ditzaten arlo pertsonalean eta eskola- eta gizarte-arloan.

Hezkuntzako Lege Organikoak, "Ekitatea hezkuntzan" izeneko II. tituluaren, 1. kapituluaren, adierazten du "Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasle" izango direla honako hauek:

- Necesidades educativas especiales derivadas de una discapacidad o trastornos graves de conducta
- Dificultades específicas de aprendizaje
- Altas capacidades intelectuales,
- Incorporación tardía al sistema educativo,
- Condiciones personales o de historia escolar

Eta, 2. kapituluaren, egoera sozial txarrean dauden ikasleei egiten die erreferentzia.

Hezkuntza-arreta hauen xedea da "bakoitzak ahalik eta neurri handienez garatzea gaitasun pertsonalak, edo, gutxienez, ikasle guztientzat orokorrean ezarritako helburu nagusiak".

LOEk aipatzen dituen talde horiek ahulagoak badira ere, eta gizarte- eta hezkuntza-bazterketa pairatzeko arrisku handiagoa badute ere, hezkuntza inklusiboaren kontzeptua ez da sailkapenean oinarritzen, eta ikasteko aukera errealak eman nahi dizkie haur guztiei hezkuntza-testuinguru aproposetan.

Arrazoi praktikoak soilik direla eta, LOEk hezkuntza-laguntzako behar espezifikoaren inguruan egiten duen sailkapena hartuko du oinarri plan estrategiko honek. Hala eta guztiz ere, pertsona batek egoera horietako bat baino gehiago bizi ditzake une berean; esaterako, pertsona bat ingurune sozial eta kultural kaltetu batekoa izan daiteke, eta, era berean, adimen-gaitasun handiak izan.

**I. ERANSKINEAN** lantzen eta deskribatzen da sailkapen hori xehe-tasun handiagoz.



**plan estrategikoa**

## 5. Egoera zein den

Euskal hezkuntza-sistemaren AMIA analisiak aukeren, mehatxuen, indarguneen eta ahulezien berri ematen digu.

Indarguneei dagokienez, euskal hezkuntza-sistemari aurrera egiten lagundu dioten elementu positiboak aipatuko ditugu. Elementu horiei esker, zailtasunak dituzten ikasleek integrazio eta inklusio handiagoa dute hezkuntzan.

Ahuleziei dagokienez, hezkuntza-sisteman eta gizartean dauden oztopoak aipatuko ditugu. Oztopo horiek geldiarazi egiten dute hezkuntza-sistema inklusiboa eraikitzekeo prozesua.

### Indarguneei eta ahuleziei

#### Araudia

Indarguneei	Ahuleziei
<p>Hezkuntzari buruzko lege organikoak (LOE) aniztasuna existitzen dela onartzen du, behar adina arreta ematen dio, eta ikastetxeak hobekuntza-planak egitera behartuta daude praktika inklusiboak zehazteko eta bermatzeko aniztasuna ez dela desberdintasun bihurtzen.</p> <p>Ikuspegi inklusiboa kontuan hartzen da EAEko Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumak ezartzen dituzten dekretuetan.</p> <p>Oinarrizko hezkuntzaren azken dekretuan (175/2007 Dekretua), "elkarrekin bizitzen ikastea" hartu da erreferentzia-ardatz gisa.</p> <p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proiektu inklusiboak bultzatzen ditu (Eskolako Laguntza Programa [PROA gaztelaniaz], Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuak [PREE gaztelaniaz], Kultura arteko proiektuak, ikasketa-elkarteak, Amara Berri...).</p> <p>Berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko dekretuak eta legeak</p>	<p>Egoera batzuetan, araudia ez da gaur egungo egoerara egokitzen, eta ikastetxeetako aniztasun handiari behar bezala erantzutea eragozten du horrek.</p>

#### Zein den lehentasunezko xede-esparrua jarduerak egiteko eta egitasmoak abiarazteko

Indarguneei	Ahuleziei
<p>Eskola inklusiboa lehentasunezko jardueraren esparrutzat hartzen da.</p> <p>Egitasmoak abiarazi dira sortzen diren beharrei erantzuteko: proiektu globalak, bizikidetzak, kultura-artekotasuna.</p>	<p>Proiektu global gutxi abiarazi dira ikasle guztiei oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen dieten curriculum inklusiboak dituztenak.</p>



**Bana-banako laguntza**

Indarguneak	Ahuleziak
Laguntzaileen lana irmotu egin da. Horrez gainera, laguntzaile mota gehiago daude. Hona hemen laguntzaileetako batzuk: Bigarren Hezkuntzako orientatzaileak, Lehen Hezkuntzako aholkulariak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, entzumen eta hizkuntzako irakasleak, hizkuntza indartzeko irakasleak, kultura arteko dinamizatzaileak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, zeinu-mintzairako irakasleak, gor-itsuentzako bitartekariak, materialen transkribatzaileak...	Ikastetxeko laguntza-egiturak ez daude behar bezala garatuta; horren ondorioz, zaila da ikastetxeek premiei behar bezala erantzutea hasiera-hasieratik.

**Laguntza-egiturak**

Indarguneak	Ahuleziak
<p>Laguntza-zerbitzuak sortu edo/eta sendotu dira: Berritzeguneak, Itsuen Baliabidetegiak, ospitaleetako eta etxez etxeko hezkuntza-arretarako eta hezkuntza-arreta terapeutikoko lurralde-zentroak.</p> <p>Jarraipen-batzordeak; hainbat federaziok, elkartetak eta erakundek parte hartzen dute batzorde horietan.</p> <p>ISEI/IVEI sortu da. Institutu horren lanari esker, beharrak ebaluatu, ikertu eta identifika ditzakegu.</p> <p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat deialdi eta egitasmo bultzatzen ditu, ikuspegi inklusiboa dutenak, eta baliabideak eskuratzeko aukera ematen dutenak (Hezkuntza Berariatz Sendotzeko Proiektuak [PREE gaztelaniaz], Eskolako Laguntza Programa [PROA gaztelaniaz], PRL-HIPI, kultura-arteko dinamizatzaileak, ikasle ijitoez arduratzen diren erakundeak...).</p> <p>Tutoretza-ekintzako planak egin dira.</p> <p>Berdintasuneko Unitate Tekniko bat dago sailean.</p>	<p>Lan-talde tekniko handiagoa, espezializatuagoa eta egonkorragoa behar dugu, eskola inklusiboaren garapen-prozesuaz arduratuko dena laguntza-zerbitzuekin elkarlanean.</p> <p>Sailen eta erakundeen (gizarte-, osasun- eta hezkuntza-sareen) arteko politikak ez dira nahikoa behar konplexuei erantzuteko (arreta goiztiarra, osasun mentala, iritsi berrientzako laguntza, gizarte-egoera dela eta aukera gutxi dituzten ikasleak, babesik ez izateko arriskuan dauden ikasleak...).</p> <p>Ikastetxeek beren premiei soilik erreparatzen diete eta erantzun partzialak ematen dizkiete unean uneko arazoei. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eragileek eta ikastetxeetakoek modu globalean antolatu beharko lituzkete baliabideak.</p> <p>Berritzeguneetako aholkulariak batez ere ikasleez arduratzen dira, ikaslearen taldeaz edo ikasgelaz globalki arduratu beharrean.</p> <p>Ohitura gutxi dago ikasleen berezko ingurua (maila berekoen arteko laguntza, ikasgelako elkarlanerako egiturak, gizarte-eta komunitate-espazioak...) laguntza gisa erabiltzeko.</p> <p>Ohitura gutxi dago baliabideak eta ideiak partekatzeke mota desberdinetako urritasunei arreta emateko taldeen artean.</p> <p>Ez dago jarduera-irizpide bateraturik lurraldeetan, laguntza-zerbitzuetan eta ikuskaritzan.</p> <p>Espezializazio handiagoa behar da HPBen inguruan aholkularitza emateko zerbitzuetan.</p>

**Curriculumak egokitzea**

Indarguneak	Ahuleziak
<p>Curriculumak hobeki egokitzen eta malgutzen dira, eta tresna pedagogiko erabilgarria da hori.</p> <p>Prestakuntza-ikastaroak eta lan-mintegiak egiten ditugu curriculumak egokitzeko.</p>	<p>Curriculumaren egokitzapen indibiduala (CEI) administrazio-espeditante huts bilakatzeko ohitura dago.</p> <p>Curriculumaren egokitzapen batzuk ez dira gelako egitasmoan sartzen.</p> <p>Batzuetan, curriculumaren egokitzapenak ez dira egokitzen eguneroko jardunera.</p> <p>Familiek ez dute asko laguntzen curriculumaren egokitzapenen jarraipena egiten.</p> <p>Curriculumak egokitzeko lana espezialisten (PT...) esku utzi ohi da, eta, batzuetan, tutorea ez da asko inplikitzen.</p>

### Diagnosi ebaluazioa

Indarguneak	Ahuleziak
ISEI-IVEI institutuak diagnosi-ebaluazioa egiten du, eta horrek emandako informazioari esker, ikastetxeetako hobekuntza-planek oinarri sendoagoa dute.	Proba batzuk diseinatzerakoan, ez dira jarraitzen irisgarritasun-irizpideak, hitzaren zentzu zabalenean.

### Sare-lana

Indarguneak	Ahuleziak
Erakundeen arteko sareak sortzen hasi dira gizarte- eta hezkuntza-esparruan, osasun- eta hezkuntza-esparruan eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza-esparruan.	Gutxi dakigu sare-lanean jarduteko metodologiei buruz. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin erakunde arteko sareak sortzeko neurriak falta dira. Zerbitzu horiek ongizate-estatuaren benetako oinarri direnez, populazio osoari zuzendutako erantzukizun publikoa izan behar lukete sare horiek, eta pertsona guztiei zerbitzu eman.

### Prestakuntza eta ebaluazioa

Indarguneak	Ahuleziak
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak prestakuntza-eskaintza zabala du (Garatu plana, berritzeguneen eskaintza, prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak...). PISA eta TIMSS azterketen arabera, gure hezkuntza-sistemak parekotasun-maila ona du.	Aparteko prestakuntza-programa gutxiago daude ikastetxeetako aholkulari-taldeentzat eta profesionalentzat. Lotura gutxi egon ohi da emandako prestakuntzaren eta ikastetxeetako praktika inklusiboen artean. Planteamendu inklusiboak ia ez dira kontuan hartzen irakasleen hasirako prestakuntzaren curriculumetan (irakasleen prestakuntzarako eskolak). Berritzeguneetan eta ikastetxeetan ematen den prestakuntzak ez ditu ikaskuntza-oztopoak gutxitzeko/gainditzeko behar adina metodologia- eta antolaketa-estrategia. PISA eta TIMSS azterketen arabera, gure hezkuntza-sistemak bikaintasun-maila baxua du. Berdintasunari buruzko prestakuntza-plan bat falta da.

**Inklusioa errazten eta oztopatzen duten jarduerak**

<b>Indarguneak</b>	<b>Ahuleziak</b>
<p>Badaude metodologiak talde heterogeneoetan lana sustatzeko.</p> <p>Hezkuntza-laguntza eta -errefortzua ematea ikasgela arruntetan bi langileren eskutik.</p> <p>Proiektuen bidezko metodologiak, eskola-ordutegia zatikatzen ez dutenak.</p> <p>Hezkuntza-plangintzaren bidez eskolaz kanpoko denbora eta lana planifikatzea.</p> <p>Ikastetxe batzuek harrera-planak eta igarobiderako norbanako planak dituzte, hezkuntza- eta gizarte-inklusioa errazten dutenak.</p> <p>Hezkuntza-proiektuek lehentasuna ematea ikasle guztiek arrakasta izateari.</p> <p>Irakasle-talde batzuk bat datoz ikasleen arrakastan sinestean datzan planteamendu metodologikoarekin.</p> <p>Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle asko eskolatzen dira hezkuntza-sisteman. Ikasle horietako askok derrigorrezko hezkuntza-etapak betetzen dituzte, bai eta derrigorrezkoak ez diren hezkuntza-etapak ere.</p> <p>Ikasgeletan metodologia inklusiboa –hots, elkarlanaren eta talde-lanaren bidezko ikaskuntza–erabiltzearen aldeko apustua egin duten ikastetxeek esperientzia onak dituzte.</p> <p>Irakasleek batera lan egiten dute beren ikasleen curriculumaren egokitzapen indibidualak (CEI) egiteko; horri esker, ikasleak gai dira ikasgelan proposatzen diren ikaskuntza-egoeretan parte hartzeko.</p> <p>Pixkanaka, hobetzen ari dira ikastetxeen irisgarritasun fisikoa eta garraio egokitua.</p> <p>Eskola 2.0 azpiegiturak eta programak ikasle guztiek gelan parte hartzea errazten dute.</p> <p>Ikastetxeetako proiektu batzuek kontuan hartzen dute genero-ikuspegia aniztasunarekiko arretan.</p> <p>Ikastetxe batzuetako proiektuek lehentasuna ematen diote ikasle guztiek arrakasta izateari, modu inklusiboan, gelan bertan beharrei erantzunez eta komunitate osoaren parte-hartzearekin.</p>	<p>Hezkuntza-premia bereziak eta/edo berariazkoak dituzten ikasleek jasotzen duten erantzuna oso zatikatua da eta ez dago behar bezala antolatuta. Espezialistarengana edo terapeutarengana bidali ohi dira, eta testuingurutik kanpo eta banaka jaso ohi dute laguntza.</p> <p>Gutxitan egoten dira bi langile gela berean hezkuntza bien artean emateko.</p> <p>Baztertuak izateko arriskuan dauden ikasleek zailtasunak izaten dituzte hezkuntza-etapa batetik bestera igarotzeko.</p> <p>Inklusioa gauzatzeko aukera handiak ematen dituzten espazioetan arreta gutxi jartzen da (jolastokiak, jangelak, eskolaz kanpoko jarduerak...) irakaslerik ez dagoenean.</p> <p>Irakasleek gutxi eskatzen diete hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, iritsi berriei eta gutxiengo etnikoetako ikasleei.</p> <p>Elkarlana/lankidetzak bultzatzen duten egiturak eta/edo metodologiak ez dira behar adina erabiltzen ikasgeletan.</p> <p>Hezkuntzako profesionalek (irakasleek eta irakasle ez direnek) ez dute ohitura handirik elkarlanean aritzeko.</p> <p>Prestakuntza espezifikoa behar da gure ikastetxeetako ikasle batzuen profilekin esku hartu ahal izateko: adoptatuekin, familia desegituratuekin, etorkinekin...</p> <p>Langile batzuek ez dute ezer asko espero ikasteko zailtasunak dituzten ikasleengandik, eta horien jardueretan eta emaitzetan eragiten du horrek.</p> <p>Irizpide garbiak falta dira ikasle batzuen eskola-ibilbidearen inguruan, eta Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara eta lanak ikasteko gelara igarotzeko orduan.</p> <p>Batzuetan, ez dago elkar-ulertzirik, enpatiarik edo harremanik familien eta langileen artean, eta hezkuntza-erantzun egoki bat ematea eragozten du horrek.</p> <p>Zailtasunetan edo urritasunetan oinarrituta landu ohi da ikasleen inklusioa.</p>

## Aukerak

**Aukerez** mintzo garenean, inguruan sortu diren edo sortzen ari diren egoerez mintzo gara; hain zuzen, behar bezala sustatuz gero, eskola inklusiboa eratzeko lagungarri diren aukerez.

- Gizartea eta, ondorioz, eskola, onartzen ari dira aniztasuna kontzeptu zabala dela eta ez dela hezkuntza-premia berezietara mugatzen.
- Hezkuntza-administrazioak eskola inklusiboaren ereduaren aldeko apustua egin du.
- Guztien eskola-arrakasta lantzeko aukera ematen du gaitasunetan oinarritutako curriculum berriak, inklusioaren ikuspegitik esku hartuz.
- Giza baliabide osagarriak daude eskoletan, antolaketa malgutzeko eta laguntzak eta esku-hartzea era malguagoan eta eraginkorragoan antolatzeko aukera ematen dutenak.
- Elkarte-mugimenduaren laguntza eta dagokien sektorean esperientzia eta ibilbide zabala duten erakundeen eta elkarten onarpena laguntza-iturri da, eta talde-lana errazten du.
- Ikastetxeek hobekuntza-planak egiten dituzte.
- Eredu inklusiboak daude, ikasle guztien arrakasta lortzeko bideari ekiten dioten ikastetxeentzat erreferentzia izan daitezkeenak.
- Diskurtso sozialak sare-lana bultzatzen du, bai eta erakundeen arteko elkarlana ere.
- Curriculumean esplizituki adierazten da ezinbestean landu behar dela gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Hezkuntza-eredu berriak sortu behar ditugu. Eredu horiek inklusioa, parte-hartzea eta ikasleen eskola-arrakasta izan behar dute oinarri, eta ikastea eta komunitateari zerbitzua ematea lotu behar dituzte (Ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa), eta, horrela, komunitatearen eta eskolaren arteko elkarrekintza sustatu.
- Hezkuntza-eredu eta metodologia berriak sortu dira, inklusioa, parte-hartzea eta ikasleen eskola-arrakasta balioesten dituztenak; ikastea eta komunitateari zerbitzu ematea edo komunitatean parte hartzea lotu behar dituzte, eta, horrela, komunitatearen eta eskolaren arteko elkarrekintza sustatu.
- European proiektu bat ari dira garatzen, "European hezkuntzaren inklusio-maila aztertzekeo adierazleak garatzea" helburu duena.
- IKTak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta, horiei esker, oztopo batzuk desagerrarazi eta komunikatzea, berdintasunez parte hartzea eta guztiek informazioa eskuratzeko aukera berak izatea errazten da.
- Komunitatean, sektoreen arteko koordinazio-lanak egiten dira.
- Herri batzuetan, ingurunearekiko elkarrekintza eta kultura-arteko elkarrekintza sustatzeko planak dituzte.
- Hezkuntza Sailaren deialdi batzuek, aniztasunarekiko arretarekin lotutakoek, ikuspuntu inklusiboa dute oinarri.
- Unibertsitatearekin lankidetzak gauzatzen da, eta horrek, ikerketa-esparrutik, esku hartzeko gakoak eman ditzake hezkuntzako langileentzat.
- Aplikazio informatiko berriaren bidez, estatistika errealak egin daitezke berriazko hezkuntza-premiak dituzten kolektiboen inguruan, eta, horrela, hobeto jakingo dugu zer premia diren nagusi, zer hauteman den eta abar, hobekuntza-proposamenak egin eta baliabideak banatu ahal izateko.
- Berdintasunaren eta inklusioaren alorrean, gero eta lege-kontzientzia handiagoa dago, gero eta lege gehiago, Eeren gomendio gehiago...
- Gizarte batek pertsona guztientzako hezkuntza-bikaintasuna lortu nahi izatea.

## Mehatxuak

Eta, azkenik, mehatxuak. Mehatxutzat hartzen ditugu guztiontzako kalitatezko eskola inklusiboa eratzea oztopatzen duten egoerak, ekonomiarekin, politikarekin edo gizartearekin lotuta daudenak.

- Sistemak bere burua aldatu nahi ez izatea. Orain arte egindakoa nahikoa dela ulertzen da eta ez zaie nahikoa arreta jartzen sortzen diren gizarte- eta hezkuntza-premiei.
- Gizarte bazterketa pairatzeko aukera gehien dituzten kolektiboen arreta soilik espezialisten esku uzteko arriskua.
- Irakasleek ezer gutxi espero dute ikasteko zailtasunak dituzten ikasleengandik (ahalmen-urritasuna dutenak, etorkinak, gutxiengo etnikoetako kideak...) eta haien familiengandik (seme-alabei laguntzeko gai ez direla izango, ezer gutxi eskatzen dietela...).
- Familia batzuek uste dute haien seme-alabek ez dutela eskola-arrakasta izateko aukerarik.
- Ikasleek ez dute behar adina espazio eskolatik kanpo ikasten jarraitzeko.
- Beste kultura batzuk asimilatzearekin nahasten da integrazioa.
- Genero desberdintasunak daude, eta, askotan, eskolan porrot egitea ekar dezakete (mutilei dagokienez, egoera txarreko inguruetakoko neskei...).
- Informazioa trukatzeko soilik biltzen dira familia eta eskola, eta ez elkarlanean aritzeko, gai garrantzitsuei buruz erabakiak hartzeko, etab.
- Gero eta guraso gehiago beldur dira seme-alabek lortutako ongizatea eta maila akademikoa galduko ote duten ikasgeletan mota askotako ikasleak daudelako.
- Gero eta zailagoa denez lan-merkatuan baldintza duinetan sartzea, jarrera indibidualistak eta lehiakorrak nagusitzen dira.
- Egitasmo batzuek ikasleak bereizten dituzte, "bikaintasuna" bultzatzeko eta nazioko eta nazioarteko ebaluazioetan puntuazio ona lortzeko.
- Familia batzuek ez dituzte onartzen profesionalek egiten dituzten hezkuntza-proposamenak.
- Irakasleek ohitura gutxi dute taldean lan egiteko.

## 6. Euskal eskola inklusiboaren eginkizuna eta ikuspegia

---

### 6.1. Eginkizuna

- Eraiki behar dugun eskola-komunitateak abegikorra, laguntzailea eta bizigarria izan behar du, eta ikasleen gaitasun eta ahalmen guztiak balioetsi behar ditu, hori baita ikasle guztiak eskola-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzeko oinarria, haien gaitasunak eta ahalmenak onartzetik eta balioestetik hasita.
- Balio inklusiboak landu behar dituzte irakasle, ikasle, familia eta komunitateko eta hezkuntza-administrazioko eragile guztiak.
- berdintasunean, zuzentasunean eta justizian oinarritutako kultura etiko bat sustatu behar da hezkuntzaren alorreko erabaki eta jarduera guztietan.

### 6.2. Eskola inklusiboaren ikuspegia

2016rako helburuak:

1. Hezkuntza-sisteman erantzukizun-postuak betetzen dituztenek protokoloak eta tresnak izango dituzte erabakiak inklusio-irizpideen arabera hartzeko, eta bereziki ikastetxeetakoek, espazio horietan gauzatzen baitira aldaketak.
2. Ikasle guztiak, eta bazterketa pairatzeko aukera gehien dituztenak batez ere, eskolatzeko eta guztiak ikasteko eta parte hartzeko aukera ematen duten irizpideei emango zaie lehentasuna indarrean dagoen araudi akademikoak berrikusterakoan eta arau berriak sortzerakoan.
3. Langileek eta eskolako nahiz eskolaz kanpoko laguntza-zerbitzuek tresnak izango dituzte ikasle guztiak ikasi eta parte har dezaten. Ikasleen gaitasunetan sinetsiko dute, eta lan egingo dute ikasleek oinarritzko gaitasunak eta haien gaitasunekin bat datozen helburuak lor ditzaten.
4. Familiak modu aktiboan parte hartuko dute hezkuntza-komunitatean, bakoitzak bere esparru espezifikotik.
5. Giza baliabideak eta baliabide materialak emango dira erabateko inklusioa lortzeko eta ikasleek eskola-arrakasta izateko.

## 7. Euskal eskola inklusiboa garatzeko helburuak

---

Plan estrategiko honek bi helburu ditu; batetik, euskal eskoletan dagoen aniztasunari, hots, ikasleen eta egoeren aniztasunari, erantzutea; eta bestetik, eskolan eta gizartean esku hartzeko irizpideak egokitzea, norbanakoaren garapena berma dadin eta ikasle guztiek eskola-arrakasta izan dezaten.

Kontzeptu eta eredu berriek eskola inklusiboa aberasten dute, esaterako, herritar guztientzako bizi-kalitatearen kontzeptuak, arreta eta esku-hartze goiztiarrarenak, laguntza-ereduak, gizarte- eta hezkuntza-mailako esku-hartzearen aurrerapenak, hala nola, gizabanakoa oinarritzat duen planifikazioak, sare-lanak, berdintasun-kontzeptuak... Azken finean, baldintza optimoak sortu behar dira ikasle guztiak behar bezala eskolatu daitezen eta ikasteko eta parte hartzeko eragozpenak desagerrarazteko.

Denborari dagokionez, plan estrategiko hau 2011-2012 ikasturtean hasi eta 2015-2016 ikasturtean amaituko da. Plana amaitzean, berriro aztertu beharko da, planak izandako bilakaera kontuan hartuta.

### Planaren helburuak

AMIA analisisan deskribatutako egoera abiapuntutzat hartuta, honako helburu hauek proposatzen ditugu:

- 1.- Kultura, politika eta jarduera inklusiboak sustatzea euskal hezkuntza-sistemaren arlo guztietan, administratibotik hasi eta ikasgeletara arte.
- 2.- Ikastetxeak aldaketa-eragile bihurtzea hezkuntza- eta curriculum-proiektuen bidez, eta ikasgelako jarduerak prestatzerakoan inklusio-ikuspegia kontuan hartzea.
- 3.- Gizabanakoaren gaitasunak lantzeari lehentasuna ematea ikasleak eskola-sisteman sartzen direnean eta hezkuntza-etapa batetik bestera igarotzerakoan, ikasle guztiek arrakasta lortu ahal izateko.
- 4.- Ezagutza, ikerketa eta ebaluazio pedagogikoa eskura jartzea; izan ere, baliagarria da irakasleen gaitasunak hobetzeko eta praktika berritzaile, eraginkor eta inklusiboak garatzeko, hau da, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.
- 5.- Familiak eta komunitateak ikastetxeetan parte hartzea sustatzea, eta sareak sortzea eragileen eta erakundeen lana berariaz eta sistematikoki koordinatzeko.
- 6.- Hezkuntza-sistemaren maila guztietan, ikasleei ematen zaien laguntza beste modu batean antolatzea eta kudeatzea, eskola inklusiboaren printzipioak kontuan hartuta.

## 8. Helburu, xede eta ekintza estrategikoak

---

**1. helburua.** Euskal hezkuntza-sisteman kultura, politika eta jarduera inklusiboak sustatzea hezkuntza-administrazioaren arlo guztietan..

### Xedeak

- 1.1. Inplikaturako eragileak eta gizarte osoa sentsibilizatzea eskola inklusiboa oso garrantzitsua dela ulertarazteko.
- 1.2. Indarrean dagoen araudia eguneratzea eta garatzea.
- 1.3. Eskola inklusiboaren bilakaera bideratuko duten printzipio etikoak bultzatzea.

**2. helburua.** Ikastetxeak aldaketa-eragile bihurtzea hezkuntza- eta curriculum-proiektuen bidez, eta ikasgelako jarduerak prestatzerakoan inklusio-ikuspegia kontuan hartzea.

### Xedeak

- 2.1. Zuzendaritza-taldeak lidergo indartzea.
- 2.2. Ikastetxeek hezkuntza-proiektuak eta -planak egiterakoan inklusio-irizpideak kontuan hartzea sustatzea.
- 2.3. Malgutzeko estrategiak erabiltzea ikasgelan curriculum garatzeko, ikasleek oinarriko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko, ikasitakoa ebaluatzeko eta bikaintasun-mailak lortzeko.
- 2.4. Ekintza-planak abian jartzea, berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei nola erantzun behar zaien zehazteko.
- 2.5. Jarduera inklusibo egokiak sustatzea ikastetxe guztietan.
- 2.6. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek, ikasgela egonkorrek eta HLPP egokituak euskal hezkuntza-sisteman zer zeregin duten aztertzea, bai eta horiek ikasleen hezkuntza- eta gizarte-inklusiari zer ekarpen egiten dioten ere.

**3. helburua.** Gizabanakoaren gaitasunak lantzeari lehentasuna ematea ikasleak eskola-sisteman sartzen direnean eta hezkuntza-etapa batetik bestera igarotzerakoan, ikasle guztiek arrakasta lortu ahal izateko.

### Xedeak

- 3.1. Arreta goiztiarrerako sailen arteko eredu bat sortzea sustatzea, eta Hezkuntza Sailak beharrezko neurriak hartzea hori abian jartzeko.
- 3.2. Ikasle guzti-guztiek ikasten hasteko aukera dutela eta eskola-sisteman sartzen eta geratzen direla bermatzea.
- 3.3. Samurtu egin behar dugu ikasleek hezkuntza-sistema batetik beste batera egin beharreko bidea, bai eta ikastetxe batetik beste batera, hezkuntza-etapa batetik beste batera eta, hala badagokio, eskolatzeko mota batetik beste batera egin beharreko bidea ere.



**4. helburua.** Ezagutza, ikerketa eta ebaluazio pedagogikoa eskura jartzea; izan ere, baliagarria da irakasleen gaitasunak hobetzeko eta praktika berritzaile, eraginkor eta inklusiboak garatzeko, hau da, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.

**Xedeak**

- 4.1. Zientziaren ekarpenak kontuan hartzea aniztasunarekiko arretarekin lotutako gaiei buruzko erabakiak hartzean.
- 4.2. Irakasleen, aholkularien eta orientatzaileen prestakuntza bultzatzea, ikastetxeetan egiten duten lana oso garrantzitsua da eta.
- 4.3. Berritzeguneetako eta Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulari guztiek eskola inklusiboari buruzko prestakuntza jasotzen dutela bermatzea.
- 4.4. Diagnostikorako tresna eguneratuak izatea, eskoletan ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak lehenbailehen hautemateko.
- 4.5. Esku hartzeko estrategiak abiarazteko eta ikaskuntza-oztopoak gainditzeko material didaktikoa sortzea sustatzea.

**5. helburua.** Familiek eta komunitateak ikastetxeetan parte hartzea sustatzea, eta sareak sortzea eragileen eta erakundeen lana berariaz eta sistematikoki koordinatzeko.

**Xedeak**

- 5.1. Ikastetxeen eta ikasle guztien familien arteko elkarlana bultzatzea, eskola gero eta inklusibo izatea lortzeko.
- 5.2. helburua.- Sare-lana sustatzea eragileen eta erakundeen arteko berariazko lankidetzaren eta koordinazio-lan sistematizatuaren bidez.

**6. helburua.** Hezkuntza-sistemaren maila guztietan, ikasleei ematen zaien laguntza beste modu batean antolatzea eta kudeatzea, eskola inklusiboaren printzipioak kontuan hartuta..

**Xedeak**

- 6.1. Erreferentzia-parametro berriak abiapuntutzat hartuta, irizpideak ebaluatzea eta ezartzea baliabideak nola banatu zehazteko, eta eredu hori komunitate osoan aplikatzea.
- 6.2. Ikastetxeek baliabideak antolatzen dituztenean, inklusioa kontuan har dezatela bultzatzea, eta ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen ez duten jardunak aldatzea.
- 6.3. Berritzeguneetan aholkuak emateko eredu bat ezartzea, aholkularitzen arteko lankidetzaren-estrategietan oinarritutakoa, ikastetxeetan modu koordinatuan eta koherentean esku hartu ahal izateko.

## 1. HELBURUA

**Euskal hezkuntza-sisteman kultura, politika eta jarduera inklusiboak sustatzea hezkuntza-administrazioaren arlo guztietan.**

Hezkuntza inklusiboagoa izateko, aldaketa-prozesu bat gauzatu behar da etengabe, argi eta garbi antolatutako printzipio-multzo batean oinarrituta. Horrez gainera, gogora dezagun hezkuntza inklusiboa lortzeko ahaleginek behar bati erantzuten diotela; hezkuntza-sistema osoa berritu, hobetu eta garatzeko beharrari, hain zuzen ere.

Aldaketak bultzatzeko honako hau guztia egin behar dugu: jendearen iritzia aldarazi, batu eta ados jarri, egoera aztertu, legedia egokitu eta laguntza eman proiektu jakin batzuen bidez beren errealitatea eskola inklusibo bilakarazi nahi duten ikastetxeei. Askotan, hezkuntza-sistemako eragileen jarduna aldatu behar izaten da, eta zer baliabide ekonomiko, giza baliabide eta baliabide intelektuala ditugun aztertu.

Eskola inklusiboaren printzipio berberak izan behar dituzte hezkuntza-administrazioaren maila guztiek, zentralak zein lurraldekakoek, bai eta Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuek ere. Koherentzia osoa izan behar dute gure hezkuntza-sistema bideratzen duten printzipioek eta ildoek, kudeaketa ekonomikoarekin, langile-kudeaketarekin eta baliabide guztien kudeaketarekin lotutako jarduerak eta hezkuntzaren alorrean ikuskatzeak gauzatzeko eta aholku emateko irizpideek.

<b>1.1 xedea. Inplikaturako eragileak eta gizarte osoa sentsibilizatzea eskola inklusiboa oso garrantzitsua dela ulertarazteko</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Hezkuntza-sistemaren maila eta etapa guztien egoera aztertzea (ISEI-IVEIren, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta berritzeguneen arteko lankidetzak).	Egoera aztertu da.
Hezkuntza-komunitateko eragile guztiei eta gizarte osoari, oro har, zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak gauzatzeko, dokumentuak eta gidak hedatzea eta abar <b>ikasturte osoan zehar</b> .	Sentsibilizazio-planeko ekintzak burutu dira. Hainbat kolektibori helarazi zaizkie gaiarekin lotutako gidak eta dokumentuak.

<b>1.2. xedea. Indarrean dagoen araudia eguneratzea eta garatzea</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
<p>Indarrean dagoen araudiari buruzko txosten bat egitea, honako alderdi hauek zehazteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Agerian jarriko da araudiak zer oztopo jartzen dizkion ikaskuntzari, bai eta pertsona guztien parte-hartzeari ere.</li> <li>▪ Proposamenak eta lehentasunezko ekintzak zehaztuko dira.</li> </ul>	<p>Burutu da jarduera-txostena, eta gauzatu beharreko lehentasunezko jardueren denborak zehaztu dira.</p>
<p>Araudiaren honako arlo hauek eguneratzeko proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintza-planak eta curriculum-egokitzapenak.</li> <li>• Laguntza-zerbitzuak eta postuak.</li> <li>• Eskolatzeko-irizpideak eta baliabide-hornikuntza.</li> <li>• Ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa.</li> <li>▪ Deialdiak, jarraibideak, ebazpenak eta zirkularrak.</li> </ul>	<p>Egindako eta argitaratutako arau-proposamenen zerrenda egin da.</p> <p>Prestakuntza-ekintzak zabaldu eta landu dira inplikaturako langileekin, eta horiek lantzeko ereduak proposatu.</p>

<b>1.3. xedea. Eskola inklusiboaren bilakaera bideratuko duten printzipio etikoak bultzatzea.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
<p>Etika-batzorde bat sortzea gerta daitezkeen egoera jakin batzuk aztertzeke eta horien gainean gogoeta egiteko..</p>	<p>Batzordea eratu da, eta antolaketa- eta eginkizun-egiturak zehaztu dira saioen diseinuaren eta landu beharreko gaien arabera.</p>
<p>Kode etiko bat prestatzea, hezkuntza-sistemaren arlo guztietan zabaltzea eta horren jarraipena egitea</p>	<p>Kode etikoa erreferente izango da plan honetan eta ikastetxeetan landutako proiektuetan zehaztutako ekintzen jarraipena egiteko.</p>

## 2. HELBURUA

**Ikastetxeak aldaketa-eragile bihurtzea hezkuntza- eta curriculum-proiektuen bidez, eta ikasgelako jarduerak prestatzerakoan inklusio-ikuspegia kontuan hartzea.**

Hezkuntza-administrazioak sistema inklusibo bat egituratzeko mekanismoak ditu. Esate baterako, honako gai hauei buruzko politikak sor ditzake: inklusioa, laguntza-sistemak, curriculumak eta ebaluazioak. Dena den, sistema inklusiboa izan dadin, proposamen horiek ikastetxeetan jarri behar dira abian. Prozesua luzea da. Legedia, araudia eta ildoak aldatzeaz gainera, ekarpen teoriko eta eredu praktiko onak eduki behar dira eta jakintzak partekatzeko aukera eman behar zaie ikastetxeei.

Curriculum egituratzean eta garatzean, kontuan izan behar dugu ikasle guztiak parte hartzeko gai izan behar direla. Ikaskuntza-modu guztietara egokitutako ikaskuntza-eredu batean oinarrituko da, eta ikasleek gaitasunak lantzea eta jakintza garrantzitsuak eskuratzea sustatuko da.

Ikastetxe bakoitzak malgutasunez aplikatu behar du bere Curriculum Proiektuan gaitasunetan oinarritutako euskal curriculumak, ikasle, komunitate, hizkuntza-talde eta talde etniko edo beste talde espezifiko batzuen beharrei erantzun ahal izateko.

Ikaskuntzako hainbat egoera proposatu behar dituzte ikasgeletako jarduerak, eta benetako aukerak eman behar dizkiete ikasle guztiei aurrerapausoak emateko eta norberaren arrakasta lortzeko. Helburua da curriculum-proiektuetan partaidetza eta ikaskuntza bermatuko duten planteamenduak eta estrategiak sartzea.

2.1. xedea. Zuzendaritza-taldearen lidergoia indartzea	
<i>ekintzak:</i>	<i>adierazleak:</i>
Zuzendaritza-taldeentzako prestakuntza-planetan eskola inklusiboari buruzko modulu bat sartzea.	Eskola inklusiboaren eta eskola-antolaketaren alorrean erreferente diren taldeen laguntza izan dugu modulua lantzeko eta diseinatzeko.
Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin lan-saioak egitea eskualde-mailan, planteamendu hori ardatz hartuta.	Eskualdeko bilerak egin dira, eta bertaratuen balioespenak bildu.

<b>2.2. xedea. Ikastetxeek hezkuntza-proiektuak eta -planak egiterakoan inklusio-irizpideak kontuan hartzea sustatzea.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Ikastetxeek aniztasunari arreta emateko plan bat egitea sustatzea, ikastetxeko proiektu guztiekin lotuta egongo dena.	Aniztasunari arreta emateko zenbat plan egin diren.
Inklusioaren ikuspuntuari lehentasuna ematea proiektuak egitean, eta horien jarraipena egitea.	Kontuan hartzen dira proiektuen memoretako balioespen-irizpideak.
Hezkuntza- eta curriculum-proiektuak modu koordinatuan eta osagarrian egin edo/eta azter daitezen bultzatzea.	Zenbat ikastetxek egin edo/eta aztertu duten curriculum-proiektua
Ikuspegi inklusiboarekin bat datozen hobekuntza-planak diseinatzea.	Proposamen inklusiboen ehunekoa handiagotzea ikastetxeek landutako hobekuntza-planetan.

<b>2.3. xedea. Malgutzeko estrategiak erabiltzea ikasgelan curriculuma garatzeko, ikasleek oinarritzko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko, ikasitakoa ebaluatzeko eta bikaintasun-mailak lortzeko.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Ikasgeletako egitasmoak eta jarduerak ikuspegi inklusiboa kontuan hartuta berrikustea sustatzea.	Ikasgeletan hautemandako jardunbide egokien zerrenda, metodologiei, ikasgelako antolamendu malguari eta ebaluazio irisgarriari dagokienez. Ikastetxeko ohiko dokumentuak (programazioak, urteko plana, hobekuntza-plana eta memoria) malgutzeko estrategiak aplikatzea, eta, gerora, balioestea.
Metodologiak eta ikasgelako antolaketa malgutzeko sustatzea, autonomia, elkarlana eta sormena bultzatzeko.	
Ebaluatzeko moduak ikasleen ezaugarrietara egokitzea sustatzea.	

<b>2.4. xedea. Ekintza-planak abian jartzea, berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei hobeto erantzuteko.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Jarduera-planen inguruko jarraibideak, estrategiak eta tresnak bilduko dituen gida bat sortzea.	Sortu da gida hori.
Gida hori ikastetxeetara hedatzea.	Zabaldu da gida hori.

<b>2.5. xedea. Jarduera inklusibo egokiak sustatzea ikastetxe guztietan.</b>	
<i>ekintzak:</i>	<i>adierazleak:</i>
Berritzeguneetan komunikazio- eta elkartruke-saioak antolatzea ikastetxeetako jarduera inklusibo egokiei buruz.	Zenbat saio antolatu diren.
Elkartruckerako sare bat sortzea proiektu inklusiboak dituzten ikastetxeen artean.	Zenbat ikastetxek parte hartzen duten eta zenbat jarduera partekatu dituzten.
Jarduera inklusibo egokiak katalogo bat zabaltzea, tresnak, jarraibideak eta adibideak bilduko dituen.	Burutu da jardunbide egokiak katalogoa.
Ohiz kanpoko neurriak diseinatzea eta aplikatzea bazterketa-arriskuan dauden ikasleak dituzte ikastetxeetan inklusio-proiektuak sustatzeko.	Eskoletako emaitzak hobetzea (akademikoak, bizikidetzarekin lotutakoak, gizarteratzea, absentismoa, mailaz igotzea, titulazioa...).

<b>2.6. xedea. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek, ikasgela egonkorrek eta HLPP egokituak euskal hezkuntza-sisteman zer zeregin duten aztertzea, bai eta horiek ikasleen hezkuntza- eta gizarte-inklusionari zer ekarpen egiten dioten ere.</b>	
<i>ekintzak:</i>	<i>adierazleak:</i>
Lan-taldeak osatzea egoera azter dezan. Administrazioako adituek eta hezkuntza bereziko ikastetxeak, IEak eta HLPP egokituak kudeatzen dituzten erakundeetako adituek osatuko dute lan-taldeak.	Gauzatu da egoerari buruzko txostena, eta kontuan hartuko da gerora erabakiak hartzerakoan.
Hezkuntza bereziko ikastetxeen ezagutza eta esperientzia erabiltzea eskola inklusiboa garatzeko.	Koordinazio sistematikorako egutegi bat ezarri da langile guztien artean.

### 3. HELBURUA

**Gizabanakoaren gaitasunak lantzeari lehentasuna ematea ikasleak eskola-sisteman sartzen direnean, bai eta ikasleak hezkuntza-sisteman egiten dituzten etapetan ere; izan ere, horri esker, ikasle guztiek arrakasta izatea lortuko dugu.**

Hezkuntza-sistema kalitatezkoa izan dadin, beharrezkoa da ikasle guztiek, bereizkeriarik gabe, hezkuntza jaso ahal izatea, eskolatzea gertutik jarraitzea eta ikasle guztiek erraz igarotzea hezkuntza-etapa batetik bestera. Hona hemen ikasleek etapaz etapa egin beharreko bidea: batetik, etxetik eskolara joan behar dira, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara, Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara, eta hortik goi-mailako ikasketetara; eta bestetik, eskolatik bizitza osoko etengabeko ikaskuntzara (EPA-HHI) eta lan-mundura. Kontuan hartu behar dugu, baita ere, ikasleak hainbat ikastetxetatik eta hezkuntza-sistematatik igarotzen direla.

Lehenengo etapa-aldaketa etxetik eskolara joatea da. Hori erraz eta arazorik gabe gerta dadin, beharrezkoa da, batetik, zailtasunik izanez gero, ahalik eta azkarren esku hartzea, eta bestetik, familiak parte hartzea eta erakundeak elkarlanean jardutea: ikastetxeak, arreta goiztiarreko zentroak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, etab.

Derrigorrezko hezkuntzan, ikasleak hainbat ikastetxetatik eta hezkuntza-sistematatik igarotzen dira. Hori dela eta, egiturazko oztupoak kendu behar dira, esate baterako, ebaluazio-prozedura zurrunik eta ikasturteak alferrik errepikatzea.

Derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleek beste ikasketa batzuk egiten dituzte edo lan-munduan sartzen dira. Edonola ere, estrategiak behar dira ikasle gehiagok egin ditzaten goi-mailako ikasketak, lanean hasiko diren ikasleen curriculumak behar bezala erabil daitezten eta enpresek ikasleei irakatsi eta laguntza eman diezaieten lanean hasten direnean. Bereziki balioetsi behar ditugu heldu-bizitzan sartzeko egiturak, Lanbide Sarrerako Programa Egokituetan jasota daudenak. Programa horiek, inklusiboak izaki, hastapeneko lanbide-heziketako sarean txertatu behar ditugu, eta, hori dela eta, sistema bat izan behar dugu eskuratutako gaitasunak aintzatesteko. Era berean, bideak jarri behar ditugu ikastetxe arruntetako nahiz berezietako ikasgela egonkorretan edo norberaren autonomia lantzeko ikasgeletan eskolatutako ikasleak lan-bizitzan sar daitezten.

**3.1. xedea. Arreta goiztiarrerako sailen arteko eredu bat sortzea sustatzea, eta Hezkuntza Sailak beharrezko neurriak hartzea hori abian jartzeko.**

<i>ekintzak:</i>	<i>Indicadores:</i>
Araudi bat egitea eredu horretan proposatutako ekintzei, hots, arreta goiztiarrarekin lotutako ekintzei, legezko babesa emateko.	Araudia egin da.
Arreta goiztiarrerako planaren berri ematea berritzeguneetako laguntza-zerbitzuei eta irakasleei.	Zenbat informazio-saio egin diren.
Arreta goiztiarra egokitzea eta sartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako programetan.	Arreta goiztiarra kontuan hartu da berritzeguneentzako jarraibideetan.
Arreta goiztiarraren gaineko prestakuntza ematea berritzeguneetako langileei.	Zenbat informazio-saio egin diren.

**3.2. xedea. Ikasle guzti-guztiek ikasten hasteko aukera dutela eta eskola-sisteman sartzen eta geratzen direla bermatzea.**

<i>ekintzak:</i>	<i>adierazleak:</i>
1. helburuko 1.1. xedeko egoera-azterketa oinarri hartuta, hezkuntza-sare guztien konpromisoa sustatzea, ikasle guztiek ikasten hasteko, eskolatzeko eta ikasten jarraitzeko aukera berak dituztela bermatzeko.	Ikasle guztien beharrei erantzun emateko konpromisoa hartu da.
Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea harreraplanak lantzerakoan edo garatzerakoan.	Hautemandako jardunbide egokien laburpena.
Jarraibideak ezagutaraztea honako hauek bermatzeko: batetik, ikasle guztiak ikasketak amaitu arte hezkuntza-sisteman gelditzen direla, eta, bestetik, ikastetxeek ez dutela irizpide baztertzailerik; hau da, ez dituztela ikasleak baztertzeko, besteak beste, ahalmen-urritasunarekin, baldintza pertsonal edo sozialekin, eskola-historiarekin, generoarekin, jatorriarekin eta abarrekin lotutako arrazoiengatik.	Jarraibideak zabaldu dira.

**3.3. xedea. Samurtu egin behar dugu ikasleek hezkuntza-sistema batetik beste batera egin beharreko bidea, bai eta ikastetxe batetik beste batera, hezkuntza-etapa batetik beste batera eta, hala badagokio, eskolatzeko mota batetik beste batera egin beharreko bidea ere.**

<i>ekintzak:</i>	<i>adierazleak:</i>
Protokoloak ezartzea ikasleak modu egokian igaro daitezkeen hezkuntza-etapa batetik beste batera eta eskolatzeko mota batetik beste batera.	Igarobide-protokoloak egin dira.
Ikastetxeen arteko, etapen arteko eta hezkuntza-administrazioko sektoreen arteko koordinazioa sustatzea, bai eta eskolatzeko, lan-munduan sartzeko eta gizarteratzeko egin beharreko igarobideaz arduratzen diren erakundeen artekoa ere. Igarobiderako banakako planak egitea.	Programa osagarrietan eta HLPPetan eskolatutako ikasleen jarraipena egin da.
Familiei aholku ematea eskola-ibilbideko igarobideen edo aldaketen gainean, eta familiek prozesu horietan parte hartzea sustatzea.	Zenbat saio antolatu diren.



#### 4. HELBURUA

**Ezagutza, ikerketa eta ebaluazio pedagogikoa eskura jartzea; izan ere, baliagarria da irakasleen gaitasunak hobetzeko eta praktika berritzaile, eraginkor eta inklusiboak garatzeko, hau da, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.**

Zientzia-komunitatearen azken ikerketak eta ekarpenak izan behar dira hezkuntza-arloko esku-hartzearen eta erabakien euskarri; izan ere, ikerketa eta ekarpen horiek ezinbestekoak dira erabaki politikoak eta hezkuntza-arloko kudeaketa eta esku-hartzea eraginkorrak eta berritzaileak izan daitezen, bai eta hezkuntzaren esparruko kolektiboen eta pertsonen hezkuntza-premiei erantzuteko ere.

Horregatik, lankidetzan sortu behar dugu Euskal Herriko unibertsitateetako ikerlari-taldeekin, berariazko hezkuntza-premien arloan lan egiten duten erakundeetako adituekin eta hezkuntza-sistemako baliabideekin: Unibertsitatez Kanpoko Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundea [ISEI-IVEI], laguntza-zerbitzuen sarea, Hezkuntza-prestakuntza eta -berrikuntza, berritzeguneak eta Hezkuntza Ikuskaritza.

Hezkuntzako profesionalek, lehenik eta behin, hasierako prestakuntza jasotzen dute, eta gero, lan egin ahala, gaitasun profesionalak garatzen dituzte etengabe, eta zientziaren ekarpenez, hots, praktika hobetzera bideratutako ekintza-ikerketaz, baliatzen dira. Horri guztiari esker, profesionalek hausnartzeko ohitura izango dute eta haien hezkuntza-jarduna berritzailea, eraginkorra eta inklusiboa izango da.

##### 4.1. helburua.- Zientziaren ekarpenak kontuan hartzea aniztasunarekiko arretarekin lotutako gaiei buruzko erabakiak hartzean.

<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Unibertsitate-sistemako, erakunde sozialetako eta hezkuntza-sistemako adituen batzordeak eratzea ikuspegi inklusiboetan oinarritutako jakintza zientifikoa areagotzeko, eta, horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunei aholku ematea erabakiak hartzeko orduan.	Batzordeak eratu dira eta txostenak egin dituzte.
Hezkuntza inklusiboari buruzko moduluak proposatzea hezkuntzako langile izango direnen hasierako prestakuntza-programetan.	Prestakuntza-moduluak prestatu eta proposatu dira.
Hezkuntza-komunitate osoari helaraztea batzordeek egindako dokumentuak, txostenak eta lanak.	Banatu dira egindako dokumentuak, txostenak eta lanak.

<b>4.2. xedea. Irakasleen, aholkularien eta orientatzaileen prestakuntza bultzatzea, ikastetxeetan egiten duten lana oso garrantzitsua da eta.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
<p>Hezkuntza Inklusiboari (HI) buruzko prestakuntza-eskaintza zabala antolatzea eta egitea irakasleentzat.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Garaturen bidez.</li> <li>▪ Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak ikastetxean.</li> <li>▪ Berritzeguneetako prestakuntza-eskaintza.</li> </ul>	<p>Zenbat ikastetxek sartu dituzten hezkuntza inklusiboarekin lotutako gaiak haien prestakuntza-planetan.</p>
<p>Aholkularientzako eta orientatzaileentzako prestakuntza-eskaintza espezifiko antolatzea eta egitea, elkarlaneko esku-hartzearen eredu abiapuntutzat hartuta. Honakoen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskualdeetako mintegiak.</li> <li>▪ Prestakuntzako modulu espezifikoak.</li> </ul>	<p>Plan hori diseinatu eta gauzatu da, eta balioespena jaso da.</p>

<b>4.3. xedea. Berritzeguneetako eta Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulari guztiek eskola inklusiboari buruzko prestakuntza jasotzen dutela bermatzea.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
<p>Prestakuntza-saioak antolatzea berritzeguneetako aholkulari-talde guztientzat, haien jardunean (ikastetxeetako esku-hartzeak, ikastaroak, mintegiak, prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak) dagozkien estrategiak erabil ditzaten ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak gainditzeko.</p>	<p>Prestakuntza-planak diseinatuta daude, saioak gauzatu dira, eta horien balioespena egin da.</p>
<p>Prestakuntza-saioak antolatzea Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulari guztientzat, haien jardunean dagozkien estrategiak erabil ditzaten ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak gainditzeko.</p>	<p>Prestakuntza-planak diseinatu dira, bai eta saioak egin ere.</p>

<b>4.4. xedea. Diagnostikorako tresna eguneratuak izatea, eskoletan ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak lehenbailehen hautemateko.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
<p>Diagnosirako tresnak lantzea, identifikatzea, aukeratzea, itzultzea, egokitzea eta baliozkotzea, tresna horien bidez, ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten zer oztopo dauden jakiteko.</p>	<p>Diagnostikorako tresnak argitaratu dira.</p>

<b>4.5. xedea. Esku hartzeko estrategiak abiarazteko eta ikaskuntza-oztopoak gainditzeko material didaktikoa egitea.</b>	
<b>ekintzak</b>	<b>adierazleak:</b>
<p>Hezkuntza Sailak materiala sortzeko egiten dituen deialdietan ikuspegi inklusiboa kontuan hartzen dela bermatzea.</p>	<p>Zenbat deialditan hartzen den kontuan ikuspegi inklusiboa.</p>
<p>Argibideak zabaltzea material eta baliabide didaktikoak ikasle guztiek erabiltzeko modukoak izan daitezen.</p>	<p>Jarraibideak igorri zaizkie materialak egiteaz arduratzen diren enpresei eta argitaletxeei.</p>
<p>Hezkuntzan esku-hartzea zuzentzeko dokumentuak eta gida espezifikoak lantzea.</p>	<p>Sortu dira dokumentuak eta gidak.</p>

## 5. HELBURUA

**Familiek eta komunitateak ikastetxeetan parte hartzea sustatzea, eta sareak sortzea eragileen eta erakundeen lana berariaz eta sistematikoki koordinatzeko.**

Ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza izan dezaten, behar-beharrezkoa da familiek eta komunitateek parte hartzea. Hezkuntza ez da profesionalen kontua soilik. Ikastetxeetan eta ikaskuntza-zentroetan ez ezik, etxean eta kalean ere ikasten da, eta, noski, ezin ahaztu informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, haien bidez ere ikasten baita. Gune horietan guztietan, irakasleekin ez ezik, beste pertsona batzuekin ere egoten dira ikasleak; esan beharrik ez dago beste pertsona horiengandik eta pertsona horiekin ere ikasten dutela. Familiek eta ikasleekin harremanetan egoten diren beste eragileek ikastetxean parte hartu behar dute, sozializatzeko guneetan hezkuntza-koherentzia eta -jarraitutasuna bermatzeko eta, bide batez, ikaskuntza hobetzeko.

Ikuspegi inklusiboak familien parte-hartzea sustatzen du bereziki, bai hainbat motatako desberdintasun sozialak pairatzen dituzten ikasleen familia (gutxiengo etnikoetakoak, kultura aski desberdinetakoak, baztertuak izateko arriskuan daudenak...), bai ahalmen-urritasunen bat dutenen familia, bai eta, oro har, eskola-komunitateko familia guztiena ere.

Familiek eta komunitateak parte hartzeko, konfiantza da giltzarria. Familien eta komunitatearen konfiantza handitu egiten da haien parte hartzeari esker seme-alaben eskolatzeak hobera egiten duela ikusi ahala. Maiz, konfiantza sortzeko prozesu horretan, lan garrantzitsua gauzatzen dute ahalmen-urritasunak dituzten pertsonen edo baztertuak izateko arriskuan dauden taldeen inklusioaren alde lan egiten duten elkarrekin edo/eta erakundeekin.

<b>5.1. xedea. Ikastetxeen eta ikasle guztien familien arteko elkarlana bultzatzea, eskola gero eta inklusiboa izatea lortzeko.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Ikastetxeentzako dokumentu bat egitea dagozkien estrategiak izan ditzaten familiekin hobeto komunikatzeko, familiei harrera hobea emateko, eta familien parte-hartzea eta prestakuntza hobetzeko. Horrez gainera, jardunbide egokien berri ere emango da dokumentu horretan.	Gurasoen federazioek balioetsi dute dokumentua.
Irakasle-taldeein oinarritzko prestakuntza ematea familiekin hobeto komunikatzeko estrategiei buruz, bai eta familiei harrera hobea egiteko, eta familien parte-hartzea eta prestakuntza hobetzeko estrategiei buruz ere.	Berritzeguneei prestakuntza-saioak gauzatu dituzte irakasle-taldeentzat.
Lankidetzaren prozedurak ezartzea ikasleen gurasoen elkarteekin eta federazioekin eta familia-kolektiboen ordezkari diren irabazi-asmorik gabeko elkarteekin. Beste batzuen artean, honako ekimen hauek gauzatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Senideentzako prestakuntza-saioak gauzatzea erakunden eta familiekin batera.</li> <li>▪ Familiekin lankidetzan gauzatutako esperientzia eta jarduerak arrakastatsuak laguntzea eta zabaltzea.</li> </ul>	Batzorde mistoak osatu dira eta landu beharreko gaien zerrenda egin da.

<b>5.2. xedea. Sare-lana sustatzea eragileen eta erakundearen arteko berariazko lankidetzaren eta koordinazio-lan sistematizatuaren bidez.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Proposamenak egitea sail-arteko lan-taldeak sortzearen inguruan; administrazio nagusiko eta/edo tokiko administrazio sektore (osasun-sektorea adibidez), maila eta esparru desberdinetako pertsonen osatutako lituzkete lan-talde horiek. Proposamenak egitea, baita ere, gaur egun dauden batzordeen funtzionamendua eta parte-hartzea hobetzeko.	Hobekuntza-proposamenak egin dira. Sortu dira batzorde berriak.
Hezkuntza Sailaren eta beste erakunde batzuen arteko zenbait lankidetzaren egitasmo eta -protokolo bateratzea eta abiaraztea.	Egitasmoak eta protokoloak abian jarri dira.
Urteroko jardunaldiak antolatzea zenbait esparrutako eta/edo erakundetako langileentzat.	Langileentzako urteroko jardunaldiak egin dira informazioa partekatzeko eta trukatzeko.

## 6. HELBURUA

**Erreferentzia-parametro berriak abiapuntutzat hartuta, irizpideak ezartzea baliabideak nola banatu zehazteko, eta eredu hori komunitate osoan aplikatzea.**

Hezkuntza-sistema guztiek baliabideak jarri behar dituzte ikasleek nahikoa laguntza izan dezaten. Baliabideak hornitzeko sistemak inklusioaren helburuekin bat datozen jokabide estrategikoak sustatu behar dituzte.

Laguntza diogunean, ikasleen ikaskuntza erraztuko duten bitarteko guztiei egiten diegu erreferentzia. Laguntza modurik garrantzitsuena ikastetxeetako baliabide arruntak erabiltzea da, hain zuzen ere: ikasle batzuek beste ikasle batzuei laguntzea, irakasle batzuek beste irakasle batzuei laguntzea, familiak ikastetxearekin elkarlanean aritzea eta komunitateak eskolaren alde jardutea.

Ikastetxeetan beste egoera batzuk sortzen ari direnez, beste hezkuntza-erantzun batzuk behar ditugu. Hezkuntza-erantzun horiek, baina, ez dautza baliabide gehiago izatean soilik; aitzitik, irakasleek beste gaitasun batzuk eskuratu behar dituzte; ikastetxeko baliabideak inklusioren ikuspuntuaren arabera antolatu eta optimizatu behar dira; baliabideak beste modu batean kudeatu behar dira; lankidetzahitzarmenak egin behar dira Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, foru-aldundiekin, udalekin eta erakundeekin; eta komunitatearen parte hartzea bultzatu behar da, bai eta familien konpromisoa ere.

Kontua da, batetik, laguntza-mota guztiak, asko espezializatutakoak zein gutxi espezializatutakoak, behar bezala antolatuta egotea eta osotasunean ematea, eta bestetik, laguntza horiek ematen dituzten zerbitzuek eta erakundeek elkarrekin lan egin ahal izatea, ikasle guzti-guztiek ikasgelan nahiz inguruko eskola arruntetan arrakasta izan dezaten.

Azkenik, ikastetxeak irisgarriak direla bermatu behar da, eta diseinu integratzailearen printzipioarekin bat datozen teknologia egokiak dauzkatela, ikasleek informazioa jasotzeko, komunikatzeko eta ikasteko aukera izan dezaten.

<b>6.1. xedea. Erreferentzia-parametro berriak abiapuntutzat hartuta, irizpideak ezartzea baliabideak nola banatu zehazteko, eta eredu hori komunitate osoan aplikatzea.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Ikastetxeetan giza baliabideak nola banatu erabakitzeke irizpideak aztertzea eta lantzea (PRL-HIPI, kultura arteko dinamizatzaileak, ijitoen erakundeak, logopedak, erizainak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, ikasle gorren koordinazio-taldea...).	Baliabideak nola banatzen diren aztertu da. Aniztasunarekiko arretarekin lotutako deialdietan txertatu dira emaitzak.
Ikastetxeetan aniztasunaren arretarako lanpostuak nola esleitu erabakitzeke irizpideak berrikustea eta lantzea (orientatzaileak, aholkulariak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, ENMko irakasleen lanpostuak).	Lanpostuak esleitzeko irizpideak aztertu dira eta txosten bat egin da.
Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako materiala nola eman behar den zehaztea (homologatzea) eta material hori berritzea. (Batez ere, ikasgela egonkorretan, ikaskuntza-geletan, ospitaleetan eta etxean arreta jasotzeko zentroetan, hezkuntza-arreta eta terapia jasotzeko zentroetan, itsuentzako baliabide-zentroetan, ikasle gorren hezkuntza-inklusiorako zentroetan).	Homologazioa egin da.
Irisgarritasunari dagokionez, gure erkidegoko ikastetxe guztien egoeraren mapa gaurkotzea. Mapa horrek zer aurrerapauso egin ditugun jakiteko balioko du, bai eta etorkizunean zer pauso egin behar ditugun jakiteko ere.	Egoera-mapa egin da, eta, ondoren, ikasgela egonkorak eta laguntza-gela irekiak baimentzeko irizpideak ezarri dira.
Behar diren neurriak ezartzea ikastetxeak irisgarri izan dadin.	Neurriak ezarri dira
Ikastetxeetan giza baliabideak nola banatu erabakitzeke irizpideak aztertzea eta lantzea (PRL-HIPI, kultura arteko dinamizatzaileak, ijitoen erakundeak, logopedak, erizainak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, ikasle gorren koordinazio-taldea...).	Baliabideak nola banatzen diren aztertu da. Aniztasunarekiko arretarekin lotutako deialdietan txertatu dira emaitzak.

<b>6.2. xedea. Ikastetxeek baliabideak antolatzen dituztenean, inklusioa kontuan har dezatela bultzatzea, eta ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen ez duten jardunak aldatzea.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Irakasle-taldeekin aholkularitza-saioak egitea, giza baliabide arruntak eta osagarriak irizpide inklusiboen arabera erabiltzeko estrategiak irakasteko.	Esku hartzeko planen baitan, Ikuskaritzak eta Berritzeguneak jarraipena egiten dute baliabide gehigarriak nola erabiltzen diren ikusteko.
Jardunbide egokien eskuliburu bat egitea irakasleentzat.	Jardunbide egokien eskuliburua egin da.

<b>6.3. xedea. Berritzeguneetan aholkuak emateko eredu bat ezartzea, aholkularitzen arteko lankidetzaz-estrategietan oinarritutakoa, ikastetxeetan modu koordinatuan eta koherentean esku hartu ahal izateko.</b>	
<b>ekintzak:</b>	<b>adierazleak:</b>
Berritzeguneen antolaketako, esku-hartzeko eta aholkularitzako ereduak eta jarduerak-esparruak egokitzea ikastetxeetan baliabideak ikuspegi inklusibotik antolatzea eta jarduerak berrantolatzea sustatzeko.	Berrikusi da eredu hori. Berritzeguneen jarraibideetan egiten zaio erreferentzia.

## 9. Planaren ebaluazioa

Aniztasunaren Arretarako Plan Estrategikoa onetsi ondoren, zenbait batzorde osatuko dira plana ebaluatzeko. 2011-2012 ikasturtean hasi eta bost urteko epean, batzorde horiek plana nola gauzatzen den aztertuko dute urtero, eta datu esanguratsuenak bilduko dituzte, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, hain zuzen.

### Batzorde zuzentzailea

Hezkuntzako Sailburuordetzaren esparruan, batzorde zuzentzaile bat osatu beharko da. Honako hauek osatuko dute batzordea: Hezkuntzako sailburuordeak, Hezkuntza Berriztatze zuzendariak, ikuskari nagusiak, ISEI-IVEIko eta Berritzegune Nagusiko zuzendariak.

Era berean, beharrezkotzat jotzen denean, planaren garapenean esku hartzen duten beste zuzendaritza batzuek (giza baliabideak, zentroak, baliabideak, administrazioa eta kudeaketa ekonomikoa...) ere parte hartu ahalko dute batzorde horretan. Horrez gainera, planarekin zerikusirik ez duten adituen aholkuak jasotzeko aukera izango du.

#### Funtzioak

1. Plan hau abian jartzen dela eta behar bezala gauzatzen dela bermatzea, eta ebaluazioak egiteko eta esku hartzeko estrategiak ezartzea.

### Batzorde teknikoa

Hezkuntza Berriztatze zuzendariak batzorde tekniko bat zuzenduko du. Honako hauek izango dira batzorde horretako kide: Hezkuntza Saileko Hezkuntza Premia Berezien Zerbitzu burua, Hezkuntza Saileko Ikuskaritza Nagusiko ordezkari bat, Hezkuntza Berriztatze Programaren lurralde-arduradunak, ISEI-IVEIko teknikari bat eta Berritzegune Nagusiko Eskola Inklusiboa Programaren arduradun bat.

Beste Zuzendaritzetako (Langileria, Ikastetxeak, Baliabideak, Kudeaketa Ekonomikoa...) ordezkariak ere egon daitezke batzorde horretan, baita esparru horretan aditu diren kanpoko langileak ere.

#### Funciones

1. Ebaluazio-prozesua diseinatzea, planifikatzea eta antolatzea.
2. Urteko memoria egitea. Memoria horretan, planaren aurrerabideari buruzko datu esanguratsuenak bilduko dituzte, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
3. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) hezkuntza-sistemaren zer alderdi aztertu beharko lituzkeen proposatzea Batzorde Zuzentzaileari. Aztertu beharreko alderdiak Plan Estrategiko honen eraginpean dauden alderdiak izango dira, hain zuzen ere.

### Jarraipen batzordeak

Planaren jarraipena egiteko, hainbat jarraipen batzorde osatu beharko dira. Batzorde Teknikoko kideak eta hezkuntza-arloko gizarte-eragileak (irakasleak, ikasleen gurasoen federazioak, erakundeak...) izango dira batzordekide.

Ebaluatu nahi diren helburuen arabera osatuko dira batzorde horiek.


#### **Funciones**

1. Planaren bilakaeraren berri ematea.
2. Planean parte hartzen duten gizarte-sektoreen proposamenak biltzea.
3. Urtean behin sektorekako txostenak egitea planaren bilakaera ebaluatzeko eta batzorde teknikoari hobekuntza-proposamenak helarazteko.



**eranskinak**

## 10. Hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleak



### 📌 Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 73. artikuluan esaten denez, *"Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar dituztenak dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak"*.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek muga nabarmenak dituzte; beste ikasleek ez bezalako mugikortasun funtzionala, buruko funtzioa, egokitze-jarrera, ikusmena edo entzumena dute. Horregatik, beste hezkuntza-proposamen bat behar dute, aparteko laguntza pedagogikoa edo/eta curriculum-neurriak dituena.

Plan Estrategiko honek *"Ezgaitasunaren funtzionamendua"* deritzon eredu erabiliko du. Eredu hori Osasunaren Mundu Erakundeak proposatu zuen Ezgaitasunaren eta Osasunaren Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapenean (FNS) (Osasunaren Mundu Erakundea, 2011)<sup>1</sup>. Norbanakoaren funtzionamendua definitzen du eredu horrek, norbanakoaren eta bere inguruaren arteko elkarrekintza oinarri hartuta.

Kontuan hartu behar dugu ahalmen-urritasunak dituzten ikasleek zer laguntza eta zenbat laguntza behar duten ahalik eta normalen bizi daitezten. Ezinbestekoa da erakundeetako eta komunitateetako eragileak elkarlanean aritzea.

Portaeran nahasmendu larriak dituzten ikasleak ere multzo horretan sartzen dira. Hainbat faktorek eragin dezakete nahasmena, eta batek baino gehiagok batzuetan; esate baterako, giro sozialean orekarik ez egoteak, buruko gaitzak izateak edo jarrera-fenotipo jakin bat izateak.

Portaeran nahasmendu larriak izateak kalte egiten dio garapen pertsonalari, sozialari eta inguruaren ongizateari (familia, eskola, komunitatea...). Arazoa konplexua denez, ez da nahikoa hezkuntzaren arloan soilik esku hartzea; aitzitik, familia-, osasun- eta gizarte-arloetan modu koordinatuan esku hartu behar da.

### 📌 Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak

Atal hau ikasle multzo heterogeneo bati buruzkoa da. Ikasle horiek berariazko premiak dituzte, adimen-atzeratasuna dutelako edo zailtasunak dituztelako hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko, irakurtzeko, idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko edo arreta jartzeko. Hori dela eta, premia horietara egokitu behar da hezkuntza-erantzuna.

<sup>1</sup> Osasunaren Mundu Erakundea. CIF: funtzionamenduaren, ezgaitasunaren eta osasunaren nazioarteko sailkapena. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Gizarte Gaietarako Idazkaritza Nagusia. Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Erakundea (IMSERSO); 2001.

Motelago ikasten dutenak dira **ohi baino motelago heltzen diren ikasleak**, eta horiei laguntza goiztiarra eman behar zaie, adin bereko ikasleen motrizitatea, hizkuntza-gaitasuna, garapen kognitiboa eta gizarte-elkarrekintza gara dezaten. Gogoan izan behar dugu, une oro, denbora elementu erabakigarria dela.

**Ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleak (IAZ)** terminoak, irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten ikasleak, kalkuluak egiten ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak eta hizkuntzarekin aparteko zailtasunak dituzten ikasleak

- Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten ikasleak soinuak deskodetzeko zailtasunak dituzte (irakurtzean, zehaztasun eza) eta/edo hitzak hautemateko zailtasunak (irakurtzean, etorri eta azkartasun eza). Zailtasun horiek iraunkorrak dira eta errendimendu akademikoari kalte egiten diote; izan ere, nahasmendu hori duten ikasleak ohi baino bi urte geroago hasten dira irakurtzen gutxienez. Gainera, gehienek idazteko zailtasunak ere izaten dituzte. Zaila da ikasle horiei laguntzea; izan ere, ezin dugu esan ikasle horiek ahalmen-urritasuna dutenik, ikasteko aukerarik ez dutenik edo zailtasun horiek gizarte- eta kultura-faktoreen ondorio direnik.
- Kalkuluak egiten ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak zailtasunak dituzte zenbatzen ikasteko, matematikako kontzeptuak ulertzeko, kontzeptuak lotzeko, datuak erabiltzeko eta problemak aztertzeko, besteak beste. Zailtasun horien ondorioz, ikasleak gutxienez bi urteko atzerapena izan ohi dute. Ezin dugu esan ikasle horiek ahalmen-urritasuna dutenik, ikasteko aukerarik ez dutenik edo zailtasun horiek gizarte- eta kultura-faktoreen ondorio direnik.
- Hizkuntzarekin aparteko zailtasunak dituzten ikasleak hizkuntza ulertzeko eta erabiltzeko gaitasunaren garapenarekin lotutako zailtasunak dituzte. Hori dela eta, premia horietara egokitu behar da hezkuntza-erantzuna.

**Atentzio-defizita duten ikasleak, hiperaktibitatea dutenak edo ez dutenak.** Ezin dute inoiz arretarik jarri edo/eta hiperaktiboak eta oldarkorrak dira. Nahasmendu horren ondorioz, ez dira gai eskolako jardueretan modu egokian parte hartzeko, ez eta gainerakoekin harreman egokiak izateko ere. Era berean, exekuzio-funtzio batzuetan ere nahasmendua izan ohi dute ikasle horiek.

**Mugako adimen-gaitasuna duten ikasleak** gaitasun akademiko eta funtzional mugatuak dituzte. Derrigorrezko eskolatze-aldiaren hasieran konturatzen dira mugak dituztela, ikaskuntza instrumentala modu sistematizatuan lantzean, hain zuzen ere. Dena den, askotan, haur-hezkuntzan, oinarrizko kontzeptuak bereganatzeko zailtasunak izan ohi dituzte, edo ulermenarekin, arreta jartzeko gaitasunarekin edo/eta hizkuntza-gaitasunarekin loturiko zailtasunak, besteak beste.

### 📌 Gaitasun handiko ikasleak

Mota askotako ikasleen talde zabala da honako hau. Batez besteko adimen-maila baino altuagoa izaten dute, sormen-maila altuak, ikasteko potentzial ona, errendimendu akademiko ona edo txarra, eta, oro har, ikasteko eta/edo haien interesekiko motibazio handia izan ohi dute.

Horrez gainera, sormenaz baliatzen dira, esate baterako, gogoetak adierazteko, ezagutzak erraz-erraz aplikatzeko, material arruntak orijinaltasunez, irudimenez eta fantasiaz erabiltzeko eta bakarrik ikasteko.

### 📌 Hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu diren ikasleak

Hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu diren ikasleen eskolatzea bermatu behar dugu. Lehenik eta behin, ikaslearen egoera, ezagutzak, adina eta ibilbide akademikoa aztertu behar ditugu. Ondoren, haren ezaugarriei eta aurretiko ezagutzei hobekien egokitzen zaien mailan sartuko dugu, eta beharrezko laguntza eman, hezkuntzari probetxua atera diezaion.

### 📌 Eskolako ibilbide edo baldintza pertsonal bereziak dituzten ikasleak

Era askotako ikasleen multzo zabala da hau ere. Ikasleak honako egoera hauetako batean egongo dira talde honetan sartzen badira:

1. Hizkuntza behar adina ez menderatzea edo oinarrizko gaitasuna eskuratzeko prozesuan desfasea izatea.
2. Osasun-arazoak izatea, eta, medikuaren aginduagatik, ikastetxera ezin joan izatea.
3. Gizarte-bazterketako arriskuan egotea ingurune sozialera, familiara edo eskolara ezin egokitu izateagatik. Honako hauek barne hartzen ditu:
  - *Portaera-arazoak dituzten ikasleak, inguru psikosozial desorekatu batean bizi direnak: antolaketarik gabeko familia batean bizi dira, zabarkeria eta abusu fisikoak pairatzen dituzte edo/eta haien familia ez da gai behar bezala erantzuteko gaztearen arazoei.*
  - *Adimen-urritasunik izan ez arren, eskolan porrot egiten duten ikasleak. Ikasteko zailtasunak edo/eta eskolako jardueretara egokitzeko zailtasunak estuki lotuta daude ikasleen portaera desegokiarekin. Are gehiago, portaera horrek eragotzi egiten die helburu akademikoak lortzea eta gizartean modu egokian parte hartzea.*
  - *Berez honako jokabide hauek dituzten ikasleak: ez dute motibaziorik, ez zaie ezer axola, jarrera uzkurra izaten dute, eskolako materialik gabe joaten dira eskolara, ez dute etxeko lanik egiten eta ez dute harremanik inorekin.*

- *Beren kultura-nortasunaren aintzatespenik ez duten gazteak (eskolako eta familiako kulturak aski ezberdinak dira), portaera desegokiak dituztenak.*
- *Hautzaroan babesik eduki ez izanarekin lotutako beste egoera batzuk: abandonua, zabarkeria, afekturik ez izana, tratu txarrak eta/edo erakundeetatik kanpo geratzea.*

#### **↳ Desberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak**

Gizartean dauden desberdintasun ekonomiko eta sozialak direla eta, gizarte-talde batzuk desberdintasun-egoeran daude. Talde horiek gizarte-egoera ahulekoak direla esango dugu; izan ere, ez dituzte gainerako taldeek hezkuntza jasotzeko dituzten erraztasun eta bitarteko berberak.

Era berean, demografia-mugimendu jakin batzuek egoera-aldaketak eragiten dituzte, eta egoera berri horietako zenbaitetan, talde batzuk zokoratuta geratzen dira kultura edo etnia berezia dutelako; bestena, hau da, gehiengoarena ez bezalako dutelako, alegia.

## 11. Terminoen glosategia

---

### IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Inguru, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek, bai eta objektuek, bitartekoek, tresnek eta gailuek ere, baldintza hau bete behar dute pertsona guztiek ulertu, erabili eta praktika ahal ditzaten, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta era autonomo eta naturalenean. "guztiontzako diseinuaren" estrategia eskatzen du, nahiz eta arrazoizko doikuntzak egin ahal zaizkion.

### IKASTEKO APARTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEAK

Ikasteko Aparteko Zailtasunak (IAZ) dituzten ikasleek nahasmendua dute entzumen-, mintzamen-, irakurmen-, idazmen-, arrazoimen- edo matematika-trebetasunak eskuratu eta erabiltzeko beharrezkoa den oinarritzko prozesu psikologiko batean edo gehiagotan.

### GAITASUN HANDIKO IKASLEAK

Gaitasun handia izateak adimenarekin, sormenarekin eta motibazioarekin zerikusia du. Gaitasun handiko ikasleek adimen, sormen eta motibazio handiz jokatzen dute. Ingurune-faktoreek (familiak, eskolak, ikaskideek) gaitasun horiek garatzea baldintzatzen dute.

### HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar dituzte hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek.

### DESBERDINTASUN SOZIALA BIZI DUTEN IKASLEAK

Ekonomiarekin, gizartearekin, kulturarekin, geografiarekin edo etniarekin lotutako arrazoiak direla medio, mugatuta dauden ikasleak dira. Muga horien ondorioz, ez dituzte beste ikasleek dituzten aukera berberak; izan ere, inguruan ez dute nahikoa baliabide behar bezala ikasteko.

### ESKOLAKO IBILBIDEA EDO BALDINTZA PERTSONALAK DIRELA ETA, HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEREZIA BEHAR DUTEN IKASLEAK

Honako hauek izan daitezke hezkuntza-laguntza berezia behar izateko arrazoiak:

1. Hizkuntzari edo oinarritzko gaitasunei edo ezagutzei dagokienez, gabezia handiak izatea. Nahasmendu baten ondorioz, ez dute komunikazioa, mintzaira edo hizketa ohi bezala garatzen. Nahasmendu horrek sistemaren osagai batean edo batean baino gehiagotan du eragina.

2. Osasun-arazoak izatea, aldi batekoak, kronikoak edo funtzio-exekuziokoak. Arazo horiek zuzenean eragiten dute eskola-errendimenduan, eta curriculumean aurrera egitea galarazten dute.
3. Eskola-absentismo handia izatea, besteak beste, hainbat arrazoiren ondorioz denbora luzean zehar huts egiten dutelako, edo, etxebizitzaz aldatzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik askotan aldatu direlako ikastetxez.

### **HEZKUNTZA-SISTEMAN OHI BAINO GEROAGO SARTU DIRELA ETA, HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEREZIA BEHAR DUTEN IKASLEAK**

Beste herrialde batzuetatik etorri izanagatik edo beste arrazoiren batengatik, gure hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu diren ikasleak dira. Derrigorrezko eskolatze-aldian sartzeko adina badute, eskolan sartu ahal izatea bermatu behar dugu. Eskolara ohi baino geroago sartzen diren ikasleen kasuak eta aldi baterako sartzen direnen kasuak kontuan hartuko dira.

### **LOTURA**

Haurrek oinarri horren gainean ulertzen eta eraikitzen dituzte harremanak, bai eta ikasten ere. Adoptatutako haurrek eraiki gabe izaten dute oinarri hori, eta horrek haien bizitzako arlo guztietan eragiten du. Segurtasuna behar dute egiten dituzten gauza guztietan eta ingurune guztietan (familian, eskolan...).

### **BERMAPUNTUAK**

Eskola inklusibo batean, “bermapuntutzat” jotzen dira hezkuntza-sistema osoaren eta ikastetxe bakoitzaren ahalmena areagotzen duten jarduera guztiak, ikasleen aniztasunari erantzun emateari dagokionez. Horien xedea da ikasgelako eta eskolaz kanpoko jarduerak ikasle guztien parte-hartzea sustatzea, eta horien jakintza eta esperientzia kontuan hartzea eskola-ingurunetik kanpo ikasteko eta parte hartzeko oztupoak gaindi ditzaten. Irakasleek ikastetxeko eta komunitateko baliabideak erabiltzen dituzte ikasle guztien ikaskuntza aktiboa bultzatzeko.

### **IKASLEEN IKASKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA ERAGOZTEN DUTEN OZTOPOAK**

Kontzeptu horren bidez adierazten dira ikasleek parte hartzeko eta ikasteko orduan izan ditzaketen oztupoak. Eredu sozialaren arabera, ikasleen eta haien testuinguruaren elkarrekintzaren bitartez agertzen dira oztupoak, haien bizitzetan eragina duten pertsonen, politiken, erakundeen, kulturen eta egoera sozialen eta ekonomikoen bitartez. Sistemaren alderdi eta egitura guztietan egon daitezke oztupoak: ikastetxeetan, komunitatean, bertako nahiz nazio-mailako politketan.



## EGOKITZE-JOKABIDEA

Funtsean, eguneroko bizitzan norberaren burua zaintzeko eta besteekin harremanak izateko egiten ditugun jokabideak dira egokitze-jokabideak.

Hainbat arlotan erabiltzen ditugu egokitze-jokabideak, hala nola, komunikatzerakoan, nork bere burua zaintzean, etxeko bizitzan, trebetasun sozialetan, komunitateko bizitzan, autogidaritzan, osasunean eta segurtasunean, irakaskuntzako trebetasun funtzioaletan, aisialdian eta lanean. (Schalock, 1992).

## AMIA

Elementu baten (guri dagokigunez, hezkuntza-sistema) ahuleziak, aukerak, indarguneak eta mehatxuak ikusteko azterketa bat da. Kontrola ditzakegun bi faktorek osatzen dute barne-egoera: indarguneek eta ahuleziak hain zuzen ere. Kanpo-egoera, berriz, kontrola ezin ditugun bi faktore hauek osatzen dute: aukerak eta mehatxuek.

## ADIMEN-DESGAITASUNA

Adimen-desgaitasuna duen pertsonak muga nabarmenak ditu adimen-funtzionamenduan eta egokitze-jokabidean, zehazki, egokitze-trebetasun kontzeptualetan, sozialetan eta praktikoetan. 18 urte bete baino lehen agertzen da desgaitasun hori (Schalock et al., 2010, 1. or.).

## DISEINU UNIBERTSALA

Diseinu unibertsalaren helburua da ahalik eta pertsona gehienentzat irigarriak diren produktuak eta inguruak sortzea, egokitzeko edo modu berezi batean berriro diseinatzeko beharrik gabe. Oztoporik gabeko diseinua, diseinu irigarria eta laguntzarako teknologia dira kontzeptu horren abiapuntu. Baina, beste kontzeptu horiek ez bezala, diseinu unibertsalak irigarritasunaren alderdi guztiak hartzen ditu kontuan, eta pertsona guztientzat da, bai eta ahalmen-urritasunak dituztenentzat ere. Ikuspuntu holistiko baten bidez konpontzen du oztopoen arazoa, pertsonen aniztasuna abiapuntutzat hartuta.

Diseinu unibertsalaren helburua da eguneroko zereginak erraztea. Horretarako, pertsona guztiek errazago eta ahaleginik gabe erabil ditzaketen produktu, zerbitzu eta inguruak sortzen ditu.

## GUZTIENTZAKO DISEINUA (GD)

Hasiera batean, esan genezake "diseinu inklusiboa", "diseinu unibertsala" eta antzeko beste termino batuen sinonimoa dela. Estatu Batuetan "diseinu unibertsal" esaten zaio, eta Europan, berriz, gehiago erabiltzen da "guztientzako diseinu" terminoa.

Guztientzako diseinuaren xedea da inguruneetan, produktuetan eta zerbitzuen esku hartzea horiek pertsona guztiek erabili ahal izateko, etorkizuneko belaunaldiak barne, haien adina, generoa, gaitasunak edo

kultura-jakintza direna direla ere. Horrela, pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute gizartea eraikitzeko prozesuan, eta aukera berak izango dituzte jarduera ekonomikoetan, sozialetan, kulturaletan, aisialdikoetan eta jolasetan parte hartzeko, eta inguruneko edozein zati eskuratu, erabili eta ulertu ahal izango dute ahal den independentzia-maila handienaz.

### **PERTSONA GUZTIENTZAKO HEZKUNTZA**

Denontzako hezkuntzari buruzko Aitorpen Unibertsalak (Jomtien, 1990), Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren eta Haurren Eskubideen Hitzarmenaren babesa duenak, esaten duenez, haur, gazte eta heldu guztiek, gizakiak izateagatik, eskubidea dute ikaskuntzako oinarrizko premiak beteko dituen hezkuntza jasotzeko. Ikaskuntza erabatekoa izan behar da; hau da, ezagutzak eskuratzen, gauzak egiten, besteekin bizitzen eta izaten ikasten lagundu behar du. Hezkuntzaren helburu izango da pertsona bakoitzaren dohainak eta gaitasunak agerian jartzea eta erabilaraztea, bai eta ikasleen nortasuna garatzea ere, bizitza hobetu eta gizartea alda dezaten.

### **DIAGNOSI-EBALUAZIOA**

Ikastetxeak hobetzeko ebaluazio-prozesu bat da, eta Oinarrizko Hezkuntzako 4. mailatik DBHko 2. mailara arteko ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak zenbateraino garatu dituzten aztertzen du. Ebaluazio hori egiteko, ikasle guztiek hainbat proba eta testuinguruarekin lotutako galdeketa komunak bete behar dituzte. Ebaluazio hori araututako irizpideen arabera aplikatuko da funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan.

Ebaluazio horren emaitzei esker, ikastetxe guztiek, irakasleek eta ikasleen familiek, eta, oro har, hezkuntza-sistema osoak, nahiko informazio objektiboa izango du haren egoerari buruz. Ikastetxeek beren datuekin osatu beharko dute informazio hori; horrela, hobekuntza-prozesuak abian jarri ahalko dituzte.

### **ESKOLA-ARRAKASTA**

Eskola-arrakasta edo -porrota aipatzean, esan beharra dago ez dugula porrot "akademikoa" murriztea soilik nahi; aitzitik, bizitzaren esparru guztietan (familiar, harremanetan, lanean eta gizartean) arrakastaz moldatuko diren ikasleak, gizabanako zein talde bateko partaide gisa, prestatzea helburu duen hezkuntza-eredua ezarri nahi dugu, ikasleek gaitasun kritikoa izan dezaten, bai eta gizartea aldatzeko gaitasuna ere. Hauxe izango litzateke arrakasta: mundu guztiari prestakuntza jasotzeko aukera guztiak ematea, premia gehien dituztenei laguntza gehiago ematea eta ikasketa-titulu orokor bat ematea. Arrakasta hori lortzeko, besteak beste, egungo hezkuntza-eredua aztertu beharko genuke; izan ere, ikasleen eskola-arrakastan edo -porrotean eragina duten faktoreetako bat da. Berriz aztertu beharko genituzke hezkuntza-eredu

horren antolamendua, edukiak, metodologia, jarduna eta ikasleen eskola-arrakasta lortzeko erabiltzen dituen baliabideak.

### HEZKUNTZA-BERDINTASUNA

Eskolak parekotasuna sustatu behar du. Hezkuntza-sistematik baztertzen diren pertsonak lan-mundutik eta gizartetik ere baztertuta egoten dira. Horregatik, azken hamarkadetan esan izan da kalitatezko hezkuntzarik jasotzen ez dutenek ez dutela erabateko hiritartasuna lortzen; izan ere, ezin dituzte beren eskubideak baliatu eta ezin dute gizartean eta kulturaren parte hartu.

Farrelek (1999) lau alderdi bereizten ditu berak egindako hezkuntza-berdintasunaren ereduan. Gizarte-taldearen berdintasunari erreferentzia egiten badio ere, oro har, ikasleen aniztasunari aplika diezaiokegu eredu hori, ikasleen arteko desberdintasunak edozein direla ere:

1. *Hezkuntza jasotzeko aukera-berdintasuna.* Esan nahi du haur, gazte eta heldu guztiek, edozein talde sozioekonomikotakoak direla ere, aukera izan behar dutela maila jakin batean eskolatuta egoteko.
2. *Biziraupen-berdintasuna.* Esan nahi du gizarte-talde ezberdinetako pertsonak aukera izan behar dutela eskola-sistemako maila jakin batean egoteko.
3. *Emaitza-berdintasuna.* Esan nahi du hezkuntza-maila jakin batean eskolatutako pertsona guztiek, edozein gizarte-taldekoak direla ere, maila horri dagozkion gauzak ikasteko aukera izan behar dutela. Horretarako, gizarteak balioetsi egin behar ditu ikasteko modu guztiak, nahiz eta ezberdinak izan.
4. *Hezkuntza-ondorioen berdintasuna.* Esan nahi du pertsona guztiek eskolako emaitzen arabera bizi maila izateko aukera izan behar dutela, edozein gizarte-taldetakoak direla ere.

### INPERATIBO ETIKOA

Bizitzaren edozein esparrutan etikoki jardun beharra da inperatibo etikoa, ez kanpoko autoritate, jokabide-kode, iritzi edo ohitura batek hala agindu digulako, baizik eta hala egin behar dugula iruditzen zaigulako guri. Zerbait egiteko dugun beharra da, hain zuzen ere, inperatibo etikoa. Inperatibo horrek ez ditu gure jokabidearen arauak zehazten. Inperatibo etikoa jokabidearen azpian dago; ezinbestean egin behar dugun zerbait bilakatzen da gure jokabidea. Kategorikoa izateak ez du esan nahi berez egin behar bat denik; aitzitik, baldintzarik gabeko, uko egin ezinezko eta ezin menderatuzko ontasuna adierazten du, balio eta xede gisa. Horregatik, berez jotzen dugu ontasun moralerantz, beste ezeri erreferentziarik egin gabe.

## INDEX FOR INCLUSION

**Tony Booth** eta **Mel Ainscow** (2000) egileen *Index for Inclusion* argitaratu zuen Erresuma Batuko Hezkuntza Inklusiborako Ikerketa Zentroak, eta 2002an eguneratu egin zuten. Lan hori Espainiako hezkuntza-testuingurura egokitu dute hezkuntza inklusiboa ebaluatze eta hobetzeko gida gisa erabili ahal izateko (Sandoval, Lopez, Miquel, Duran, Gine eta Echeita, 2002). Latinoamerikarako eta Kariberako UNESCOren Eskualdeko Bulegoak egindako itzulpenean oinarritzen da egokitzapen hori.

EAEen ere badago bertsio egokitu bat, euskaraz eta gaztelaniaz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2005ean argitaratutakoa.

Indexa ikastetxeentzako autoebaluazio-gida bat da, eta bi helburu ditu: batetik, **aztertzea** zer neurritan diren inklusibo hezkuntza-proiektuak, curriculum-proiektuak eta ikasgelako jarduera zehatzak. Indexaren bidez, errazagoa da identifikatzea zer **oztopo** dauden alderdi horietan ikasle jakin batzuek parte hartzea eta ikastea eragozten dutenak. Eta, bestetik, etengabe **hobetzen** hasteko eta jarraitzeko balio du, ikastetxearen ustez lehentasuna duten oztopoak desagerrarazteko edo minimizatzeko hain zuzen ere.

*Indexaren* egileek behin eta berriro gogorarazi diguten eran: "benetan garrantzitsua dena ebaluatzen hasi behar dugu, ezin diogu ebaluatzen dugunari soilik garrantzia eman". Alde horretatik, hezkuntza-inklusioarekin lotutako kulturak eta ikastetxeetako hezkuntza-politikak nahiz -jardunak aztertu behar direla esaten du *Indexak*, betiere, inklusioa modu zabalean ulertu behar dugularik; hau da, ikasle guztiak eskolan egon, ikasi eta parte hartu ahal izatea da inklusioa.

## ELKARLANEAN ESKU HARTZEKO EREDUAK

Elkarlanean esku hartzeko ereduak bat datoz: profesionalak, haien prestakuntza, sarea edo erakundea edozein dela ere, elkarrekin lan egin behar dute bakoitzak bere ezagutza- edo lan-esparrutik, arazoei aurre egiteko, egoera jakin bat aztertze, erabakiak aztertze, etab.

Egoera jakin batek profesional guztiak ukitzen baditu, profesional bakoitzak bere esparrutik esku hartzeko erantzukizuna du.

Hori dela eta, profesional bakoitzari lotutako eginkizunak berriro planteatu behar dira. Esku hartzeko tresnek arrazoiketaren, autoikaskuntzaren eta elkarlanaren garrantzia azpimarratu behar dute, besteak beste.

## HEZTEKO OBJEKU DIGITALAK

Hezteko Objektu Digitala (HOD), Hezteko Material Digitala (HMD) edo Objektu Didaktiko Digitala (ODD) (LOM-ES 1.0 bertsioaren aplikazio-profilaren arabera objektu digital bat aipatzeko baliozko adierak) hezteko eduki digital bat da, erabiltzailearen ikaskuntzarako balio duena eta, bere horretan, edo beste objektu sinpleago batzuekin integratuta, hezteko material multimedia osatzen duena edo osa dezakeena. Ikuspuntu horretatik, objektu digital bat, esate baterako, irudi bat, ikaskuntza-argibideak emateko metadatuak dituen, HOD bat izango da LOM-ES aplikazioan.

## ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO PLANA

Dokumentu orokorra da, eta ikasleen aniztasunari erantzun emateko aurreikusitako neurriak jasotzen ditu, bai eta horretarako zer baliabide erabiliko diren, zer hezkuntza-orientazio duen eta hori ebaluatzeko eta berrikusteko zer prozedura erabiliko den ere.

Aniztasunarekiko arretak ikastetxe guztiei eragiten die, eta, beraz, horiek antolatzen hasten diren hasierako une beretik hartu beharko da kontuan.

Ikastetxe guztiek landu beharko dute aniztasunari arreta emateko plan bat ikuspegi inklusibotik, ikastetxearen beraren antolaketa orokorrean sartu ahal izateko aniztasunari arreta emateko neurriak.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan sartzen da, eta hezkuntza-jarduera planifikatzeko, antolatzeko eta garatzeko prozesu orokorretan sartu beharko da.

### **Edukia:**

Honako alderdi hauek landu beharko ditu aniztasunari arreta emateko planak:

1. Hasierako egoera eta beharrak aztertzea: testuingurua, ikasle-motak, ikastetxeko eta inguruko hezkuntza-eskaintza, baliabideak eta bitartekoak, hautemandako beharrei erantzuteko aurrez hartutako neurriak, etab.
2. Egoeraren eta beharren azterketaren arabera, zer xede lortu nahi diren zehaztu beharko da.
3. Aniztasunari arreta emateko zer neurri proposatzen diren adieraztea, bai antolaketari dagokionez, bai eta curriculumari eta koordinazioari ere.
4. Aurreikusitako neurriak aplikatzeko ikastetxean zer baliabide dauden aztertzea, eta beste hezkuntza- eta/edo gizarte-erakunde batzuek ere parte hartzeko aukera aztertzea.
5. Planaren ebaluazioa eta jarraipena.
6. Amaierako memorian jasoko diren hobekuntza-proposamenak.

## JARDUERA-PLANAK

Jarduera-planean jasotzen dira hezkuntzako esku-hartzeko funtsezko alderdi guztiak, ikastetxean epe jakin batean aplikatuko direnak; hezkuntza-laguntzako behar bereziak dituzten ikasleek behar bezala aurrera egiteko ebaluazio psikopedagogikoak emandako gomendioak ere jasoko ditu.

Honako hauek dira jarduera-planaren osagarriak:

1. Norentzat egin den adierazi behar da, hau da, dagokion ikaslearen izen-abizenak adierazi, bai eta zer mailatan eskolatuta dagoen ere, eta zer langilek parte hartuko duten ere adierazi behar da.
2. Eskolatzeko proposamena; zer motatako hezkuntza-inklusioa den jasoko da, bai eta eskolatzeko zer ezaugarri izan behar dituen ere ikaslearen hezkuntza-beharrei erantzun emateko.
3. Zer arlotan edo ikasgaitan proposatzen den curriculumak egokitzea, eta zer ebaluazio-irizpide jarraituko diren horietan.
4. Jarraipena nola egingo den.
5. Legezko arduradunak jakinaren gainean daudela adierazi behar da, eta haien iritzia jaso egoki irizten bada.
6. Eta beharrezko izanez gero:
  - Ikaslea behar bezala eskolatzeko behar diren laguntza-neurriak.
  - Zer arlotan, ikasgaitan edo lanbide-modulutan egin beharko diren hezkuntza-errefortzuko jarduerak, eta zein izango diren errefortzu horren ildo nagusiak eta zer intentsitate izango duen, eta nor arduratuko den hori emateaz.
  - Derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzaren ondorengoan: ziklo edo maila batean nabarmen aldatuko diren arloak, ikasgaiak edo lanbide-moduluak.

## HOBEKUNTZA-PLANAK

Hobekuntza-planak egitearen helburua etengabe hobetzea da, eta, beraz, planaren eginkizun nagusietako bat hobekuntza-plana bera etengabe berregitea da. Plan hori egiteko, eskola-komunitate osoaren babesa behar da, eta, bereziki, zuzendaritza-taldearen eta irakasle-taldearen babesa.

Hobekuntza-planean, erabaki estrategikoak egongo dira, hezkuntza-zerbitzua hobetzeko antolamendua nola aldatu behar den zehazteko.

Hobekuntzak ezartzeaz gainera, egindako ekintzak kontrolatzeko eta ekintzen jarraipena egiteko ere balio du plan horrek, bai eta zuzenketak egiteko ere, baldin eta espero ez zen zerbait gertatzen bada.

Plan hori egiteko, helburuak zehaztu eta helburu horiek lortzeko eginkizunak planifikatu behar dira.

Honakoetarako aukera ematen du hobekuntza-planak:

1. Hautemandako ahuleziak zeren ondorio diren jakin dezakegu.
2. Hobetzeko zer egin dezakegun jakin dezakegu.
3. Hobetzeko ekintzak bideragarriak diren azter dezakegu.
4. Lehentasunezko ekintza-ildoak ezar ditzakegu.
5. Etorkizunean egin beharreko ekintzen plana izan dezakegu, bai eta ekintza horiek kontrolatzeko eta ekintza horien jarraipena egiteko sistema bat ere.

Hobekuntza-planek hobekuntzarako ekintzak prestatzeko, lehentasunaren arabera antolatzeko eta planifikatzeko balio dute, bai eta kalitate handiagoko hezkuntza lortzeko, ahuleziei aurre egiteko eta diagnosi-ebaluazioan hautemandako indarguneak sendotzeko ere.

#### **NORMALIZAZIO-PRINTZIPIOA**

Printzipio horrek berekin dakar pertsona guztien eskura jartzea, eta, batez ere, norberaren egoerarekin, eskolarekin, gizartearekin edo lanarekin lotutako zailtasunak dituztenen eskura, gizarteko gainerako pertsonen eguneroko bizimodua eta bizi baldintzak izateko aukera ahalik eta neurri handienez.

Horrez gainera, normalizazioak esan nahi du, batetik, pertsona horiek eguneroko jardunean ezagutzeko eta errespetatzeko aukera izatea, eta bestetik, pertsona horiek baztertzera bultzatu izan gaituzten beldurrak eta mitoak deuseztatzea. Hori guztia, noski, onuragarria da pertsona horientzat, bai eta gizartearentzat ere.

Zer bizi-baldintza arrunten bidez lortuko dute zailtasun-egoeran dauden pertsonak gizarteratzea?

Hona hemen baldintza horietako batzuk:

1. Kolektibitateko gainerako pertsonen eguneroko jarduera berak egitea garai berean (ordutegia, lana eta atsedena).
2. Garapen-aldiek antzeko ezaugarriak izatea (haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa, helduaroa, zahartzaroa).
3. Intimitate eta eskubide konstituzional berberak izatea (gurariak, aukerak eta helburuak).
4. Baliabide ekonomikoak izatea (bizitzeko diru-sarrera).
5. Harreman afektiboak eta sexualak izateko eskubidea izatea.

Denborak aurrera egin ahala, ekarpen asko egin zaizkio normalizazio kontzeptuari. Besteak beste, argi gelditu da pertsonak normalizatu beharrean ingurua normalizatu behar dela. Horrek esan nahi du bitartekoak eta bizi-baldintzak beharretara egokitu behar direla. Horregatik, gizabanakoen inguru pobretua aldatu beharko da eta gizabanakoei laguntza eman beharko diegu autokontzeptu hobea izan dezaten. Horrek, oro har, eraginkortasun handiagoz ikasten lagunduko die.

### **IKTak**

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien multzoan (IKT, IKTak edo IKTB Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, edo IT "Information Technology"), informazioa -bereziki informatikaren, Interneten eta telekomunikazioen bidez- tratatzeko eta igortzeko elementuak eta teknikak sartzen dira.



## 12. Bibliografia

---

- 📖 Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza garatzeko Europako agentzia (2009). *Desarrollo de indicadores sobre educación inclusiva en Europa*.
- 📖 Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza garatzeko Europako agentzia (2009). *Multiculturalidad y necesidades educativas especiales*.
- 📖 Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza garatzeko Europako agentzia (2010). *Atención Temprana. Progresos y desarrollo 2005-2010*.
- 📖 American Association on Mental Retardation. *Discapacidad intelectual. Definición, clasificación y sistemas de apoyo* (11 Edizioa). Miguel Ángel Verdugo Alonso (itzultzailea). Alianza Editorial. Madril 2011. (Down S. Fundazioa).
- 📖 Ainscow eta Booth: Index for inclusion. (2002): Centre for Studies on Inclusive Education (CSIE) Bristol, Erresuma Batua.
- 📖 Booth, T. & Ainscow. M.(2005): Guía para la Evaluación y mejora de la Educación Inclusiva. Desarrollando el aprendizaje y la participación en las escuelas. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.2005.
- 📖 Booth, T., Nes, K. & Stromstad, M. (Ed.) (2003). Developing inclusive teacher education. Londres: Routledge Falmer. Gerardo Echeitak, Angeles Parrillak eta Francesc Carbonell i Parisek aipatua. UNIBERTSITATEETAN ETA HEZKUNTZA BEREZIAREN XXV. JARDUNALDIA. Viceko Unibertsitatea. 2008ko martxoaren 12 eta 13. ESPARRU-TXOSTENA. Hacia un marco de referencia común para la educación del alumnado en desventaja. La educación especial a debate.
- 📖 EUROPAKO BATZORDEA. Hezkuntza eta Kulturako Zuzendaritza Nagusia. 2004ko azaroa: Educación y Formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010.
- 📖 EUROPAKO BATZORDEA. Bruselan, 2010eko martxoaren 3ko BATZORDEAREN KOMUNIKATUA. EUROPA 2020. Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador.
- 📖 EUROPAKO KONTSEILUA. MINISTROEN LAN-TALDEA. Recomendación Rec(2006)5 del Comité de Ministros a los Estados miembros sobre el Plan de Acción del Consejo de Europa para la promoción de derechos y la plena participación de las personas con discapacidad en la sociedad: mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad en Europa 2006-2015. (2006ko apirilaren 5ean, Ministro-Lantaldeak egokitua, Ministro Ordezkarien 961. bileran). mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad en Europa 2006-2015 (Ministoren Lan-

taldeak onartua 2006ko apirilaren 5ean, Ministroen Ordezkarien 961. bileran).

📄 Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (1989): Una Escuela Comprensiva e Integradora. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1989.

📄 Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (2000): Programas De Innovación Educativa 2000-2003. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Vitoria-Gasteiz. 2000ko maiatza.

📄 Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (2004): Programas De Innovación Educativa 2003-2006. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

📄 Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (2008): Programas De Innovación Educativa 2007-2010. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

📄 Echeita, G. eta Verdugo, M. A. (Koord.) (2004): La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva. Salamanca: INICO.

📄 Echeita, G. (2006). Educación para la inclusión. Educación sin exclusiones. Madril: Morata.

📄 Echeita, G., Parrilla, A. eta Carbonell i Paris, F. UNIBERTSITATEETAN ETA HEZKUNTZA BEREZIAREN XXV. JARDUNALDIA. Viceko Unibertsitatea. 2008ko martxoaren 12 eta 13. ESPARRU-TXOSTENA. Hacia un marco de referencia común para la educación del alumnado en desventaja. La educación especial a debate.

📄 EDEKA. (2010) Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundea. Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguneko manifestua.

📄 EURYDICE. (2006): Las cifras clave de la educación en Europa 2005. Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Saila. EUROSTAT.

📄 EUSTAT. (2006) Informe Socioeconómico de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Estatistikaren Euskal Institutua. Eusko Jaurlaritza.

📄 FEAPS (2000): Manual de Buena Práctica de Educación. Madril: FEAPS.

📄 FEAPS (2009): REINE gida. Reflexión ética sobre la inclusión en la escuela. Madril: FEAPS.

📄 GARDNER, H.; CSIKSZENTMIHALYI, M.; DAMON, W.(2002). Buen trabajo. Cuando ética y excelencia convergen. Paidós. Bartzelona.

- 📄 Giné, C. (2004): La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva desde Catalunya. G. Echeita eta M. A. Verdugo (koord.). La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva lanean. Salamanca: INICO.
- 📄 INCLUD-ED. Strategies for inclusion and social cohesion in Europe from education. VI Programa Marco de la Comisión Europea.
- 📄 ISEI-IVEI (2007) Ikerketa: Abandono escolar. Segundo Ciclo de ESO. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)
- 📄 ISEI-IVEI (2009ko apirila). Efecto de las repeticiones de curso en el proceso de enseñanza-aprendizaje del alumnado. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)
- 📄 Jaussi Nieva, María Luisa (koord.) (1998): Educación intercultural: Orientaciones para la respuesta educativa a la diversidad étnica y cultural de la escuela. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- 📄 Kyriazopoulou, M. eta Weber, H. (arg.) (2009). Desarrollo de indicadores sobre educación inclusiva en Europa, Odense, Dinamarca: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza garatzeko Europako agentzia.
- 📄 2/2006 LEGE ORGANIKOA, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa. (2006ko maiatzaren 4ko, osteguneko, BOE).
- 📄 Mendía, R. (1.997). El Tratamiento De La Diversidad En La Educación Secundaria Obligatoria. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- 📄 Mendía, R. (2004): Paso a paso hacia una escuela inclusiva en el País Vasco. G. Echeita eta M. A. Verdugo (koord.). La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva lanean. Echeita eta M. A. Verdugo (Koord.): La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva.
- 📄 National Joint Committee on Learning Disabilities (1994). Collective perspectives on issues affecting learning disabilities. Austin, TX. PRO-ED.
- 📄 Ahalmen-urritasunak dituzten pertsonei buruzko hitzarmena eta hautazko protokoloa (2006).
- 📄 Nazio Batuak: A/RES/65/1 Cumplir la promesa: Unidos para lograr los Objetivos de Desarrollo del Milenio (2010).
- 📄 Hezkuntza-premia bereziei buruzko EAeko araudia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 1999.

- 📄 OCDE (2007). Education and Training Policy No More Failures. Ten steps to equity in education. Paris: OCDE.
  
- 📄 OCDE – CERI (2005). Students with disabilities, learning difficulties and disadvantages. Statistics and indicators. Paris: OCDE.
  
- 📄 Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua. Hezkuntza eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 1983.
  
- 📄 Schalock, R. L. eta Verdugo, M. A. (2003): Calidad de vida. Manual para profesionales de la educación, salud y servicios sociales. Madrid: Alianza.
  
- 📄 UNESCO (1990). Guztientzako hezkuntzari buruzko munduko deklarazioa. Satisfacción de las necesidades básicas de aprendizaje (Jomtien, Tailandia, 1990eko martxoaren 5etik 9ra). Hemen ikusia:  
<http://unesdoc.unesco.org/images/0008/000862/086289sb.pdf>.
  
- 📄 UNESCO (1994). Declaración de Salamanca y marco de acción para las necesidades educativas especiales (Salamanca, Espainia, 1994ko ekainaren 7tik 10era). Hemen ikusia:  
[http://www.unesco.org/education/pdf/SALAMA\\_S.PDF](http://www.unesco.org/education/pdf/SALAMA_S.PDF).
  
- 📄 UNESCO (2000). Marco de acción de Dakar. Educación para Todos: cumplir nuestros compromisos comunes. Paris. UNESCO.
  
- 📄 UNESCO (2004) Temario Abierto sobre Educación Inclusiva. Materiales de Apoyo para Responsables de Políticas Educativas. Latinoamerikako eta Karibe UNESCO eskualdeetako bulegoak, OREALC/UNESCO Santiagok, argitaratua. Santiago (Txile).
  
- 📄 UNESCO (2005). Guidelines for inclusion. Ensuring access to education for all. Paris. UNESCO.
  
- 📄 UNESCO (2008): La educación inclusiva: el camino hacia el futuro. Erreferentzia-dokumentua. Geneva. UNESCO.
  
- 📄 EUROPAR BATASUNA. Lisboako Trataturia, Europar Batasunaren Trataturia eta Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia aldatzen dituen (2007/c 306/01).
  
- 📄 Zebait egile (1995). El Profesorado Consultor. Su fundamento, sus funciones, su práctica. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
  
- 📄 Zenbait egile (2002) Comunidades de Aprendizaje en Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

📖 Zenbait egile (2005): La respuesta a las necesidades educativas especiales en una escuela vasca inclusiva. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

📖 Zenbait egile (2006): La respuesta a las necesidades educativas especiales en una escuela vasca inclusiva. Experiencias y debates de algunas buenas prácticas. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.





**2.4. xedea. Ekintza-planak abian jartzea, berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei nola erantzun behar zaien zehazteko.**

Jarduera-planen inguruko jarraibideak, estrategiak eta tresnak bilduko dituen gida bat sortzea.

Gida hori ikastetxeetara hedatzea.

**2.5. xedea. Jarduera inklusibo egokiak sustatzea ikastetxe guztietan.**

Berritzeguneetan komunikazio- eta elkartruke-saioak antolatzea ikastetxeetako jarduera inklusibo egokiei buruz.

Elkartruckerako sare bat sortzea proiektu inklusiboak dituzten ikastetxeen artean.

Jarduera inklusibo egokien katalogo bat zabaltzea, tresnak, jarraibideak eta adibideak bilduko dituena.

Ohiz kanpoko neurriak diseinatzea eta aplikatzea bazterketa-arriskuan dauden ikasleak dituzte ikastetxeetan inklusio-proiektuak sustatzeko.

**2.6. xedea. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek, ikasgela egonkorrek eta HLPP egokituak euskal hezkuntza-sisteman zer zeregin duten aztertzea, bai eta horiek ikasleen hezkuntza-eta gizarte-inklusioari zer ekarpen egiten dioten ere.**

Lan-talde bat osatzea egoera azter dezan. Administrazioako adituek eta hezkuntza bereziko ikastetxeak, IEak eta HLPP egokituak kudeatzen dituzten erakundeetako adituek osatuko dute lan-talde hori.

Hezkuntza bereziko ikastetxeen ezagutza eta esperientzia erabiltzea eskola inklusiboa garatzeko.





**3.3. xedea. Samurtu egin behar dugu ikasleek hezkuntza-sistema batetik beste batera egin beharreko bidea, bai eta ikastetxe batetik beste batera, hezkuntza-etapa batetik beste batera eta, hala badagokio, eskolatzeko mota batetik beste batera egin beharreko bidea ere.**

<p>Protokoloak ezartzea ikasleak modu egokian igaro daitezten hezkuntza-etapa batetik beste batera eta eskolatzeko mota batetik beste batera.</p>														
<p>Ikastetxeen arteko, etapen arteko eta hezkuntza-administrazioko sektoreen arteko koordinazioa sustatzea, bai eta eskolatzeko, lan-munduan sartzeko eta gizarteratzeko egin beharreko igarobideaz arduratzen diren erakundeen artekoa ere. Igarobiderako banakako planak egitea.</p>														
<p>Familiei aholku ematea eskola-ibilbideko igarobideen edo aldaketen gainean, eta familiek prozesu horietan parte hartzea sustatzea.</p>														
<p>Protokoloak ezartzea ikasleak modu egokian igaro daitezten hezkuntza-etapa batetik beste batera eta eskolatzeko mota batetik beste batera.</p>														



**4.3. xedea. Berritzeguneetako eta Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulari guztiek eskola inklusiboari buruzko prestakuntza jasotzen dutela bermatzea.**

Prestakuntza-saioak antolatzea berritzeguneetako aholkulari-talde guztientzat, haien jardunean (ikastetxeetako esku-hartzeak, ikastaroak, mintegiak, prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak) dagozkien estrategiak erabil ditzaten ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak gainditzeko.														
Prestakuntza-saioak antolatzea Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulari guztientzat, haien jardunean dagozkien estrategiak erabil ditzaten ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak gainditzeko.														

**4.4. xedea. Diagnostikorako tresna eguneratuak izatea, eskoletan ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopoak lehenbailehen hautemateko.**

Diagnosirako tresnak lantzea, identifikatzea, aukeratzea, itzultzea, egokitzea eta baliozkotzea, tresna horien bidez, ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten zer oztopo dauden jakiteko.														
---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

**4.5. xedea. Esku hartzeko estrategiak abiarazteko eta ikaskuntza-oztopoak gainditzeko material didaktikoa sortzea sustatzea.**

Hezkuntza Sailak materiala sortzeko egiten dituen deialdietan ikuspegi inklusiboa kontuan hartzen dela bermatzea.														
Argibideak zabaltzea material eta baliabide didaktikoak ikasle guztiek erabiltzeko modukoak izan daitezen.														
Esku-hartzea zuzentzeko dokumentuak eta gida espezifikoak lantzea.														





**6.2. xedea. Ikastetxeek baliabideak antolatzen dituztenean, inklusioa kontuan har dezatela bultzatzea, eta ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen ez duten jardunak aldatzea.**

Irakasle-taldeekin aholkularitza-saioak egitea, giza baliabide arruntak eta osagarriak irizpide inklusiboen arabera erabiltzeko estrategiak irakasteko.														
Jardunbide egokien eskuliburu bat egitea irakasleentzat.														

**6.3. xedea. Berritzeguneetan aholkuak emateko eredu bat ezartzea, aholkularitzen arteko lankidetzaz-estrategietan oinarritutakoa, ikastetxeetan modu koordinatuan eta koherentean esku hartu ahal izateko.**

Berritzeguneen antolaketako, esku-hartzeko eta aholkularitzako eredu eta jardura-esparruak egokitzea ikastetxeetan baliabideak ikuspegi inklusibotik antolatzea eta jarduerak berrantolatzea sustatzeko.														
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--